


Tokiko 2030 Agenda

Nola heldu Garapen Jasangarriaren

Helburuei tokiko eremutik

Gida praktikoko eguneratua



© Ihobe S.A., 2023ko martxoa

Argitaratzailea:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
Eusko Jaurlaritza

www.udalsarea2030.eus

Urkixo zumarkalea, 36 - 6. solairua
48011 Bilbo - Tel: 94 423 07 43

Edukia:

Dokumentu hau Ihobe sozietate publikoak prestatu du,
ENEA Estrategías para la Sostenibilidad, S.L.ren laguntzarekin eta ISLADAK
Aholkularitza Koop. Elk. Txikiarekin lankidetzan eguneratua.

Lege-gordailua: Bi-952-2019

Esku artean duzun dokumentu hau 2030 Agenda Lantaladeak 2021eko urritik 2022ko ekainera bitartean egindako lanaren emaitza da. Udalsarea 2030 gidatu duen lantalde horretan, parte hartu duten udalerrri eta eskualdeek Ihobek 2019an argitaratu zuen "Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Iraunkorreko **Helburuei** toki-eremutik" gida praktikoa zehazten diren Udalerrientzako erreferentziazkoak diren Helmugak eta GJH lotutako Garapen Jasangarriaren Udal **Adierazleen** zerrenda aztertu eta osatu dituzte.

2030 Agendako Lantaldean ondorengo erankundeek parte hartu dute:

Abanto-Zierbena, Aiara/Ayala, Amurrio, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arratiako Mankomunitatea, Balmaseda, Basauri, Bergara, Donostia-San Sebastián, Durangaldeko Mankomunitatea, Ermua, Ispaster, Leioa, Lemoa, Maruri-Jatabe, Muskiz, Mungia, Ordizia, Ortuella, Vitoria-Gasteiz, Zarautz, Zierbena, Zumaia y Zumarraga.

AURKIBIDEA



ORRIALDEA

02

Tokiko 2030 Agendaren Aukerak

04

Gidaren aurkezpena eta egitura

08

1. URRATSA. Nola heldu Tokiko 2030 Agenda lantzeko prozesuari

16

2 URRATSA. Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) tokiko errealitatetik ezagutzea

22

3 URRATSA. TOKIKO 2030 AGENDAREN estrategia formulatzea

30

4 URRATSA. TOKIKO 2030 AGENDAREN Plana lantzea

42

5 URRATSA. Udalerriak Garapen Jasangarriaren Helburuei egiten dien ekarpena neurtzea

47

I. ERANSKINA. GJHak euskal udalerrien testuingurura hurbiltzea *

65

II. ERANSKINA. Udalerrientzat erreferentzia diren 95 Helmugak

83

III. ERANSKINA. Tokiko eremutik GJHei ekarpena egiten dieten ekintzen tipologia

107

IV. ERANSKINA. GJHei lotutako Garapen Jasangarriaren udal adierazleen zerrenda

* ERANSKIN espezifikoa Tokiko Jasangarritasunerako Plana duten edo izan duten euskal udalerrientzat.

TOKIKO 2030 AGENDAREN AUKERAK

2030 Agendak esparru homogeneo bat eskaintzen du, administrazioaren maila guztietan, garapen jasangarriaren plangintzarako. Udalerrien kasuan, 2030 Agendak zenbait politika sektorial integratzen ditu, eta, hortaz, garapen jasangarriari laguntzen dioten tokiko politikak behin betiko koordinatzeko eta zeharkakotasunez aplikatzeko beharrezkoa den aldaketa ekar dezake.

Udalerri bakoitzak bere hausnarketa egin dezake 2030 Agendak eskaintzen dizkion aukeren inguruan; nolanahi ere, aurretiko ideia gisa, jarraian aurkezten da **Udalsarea2030 – Udalerri jasangarrien euskal sareko** udalerri eta eskualdeetako pertsonal teknikoz osatutako hausnarketa-talde baten emaitza, 2030 Agendak udalerriei eskaintzen dizkien aukera nagusiak identifikatzeko baliagarria izango delakoan.



MUNDUKO GARAPEN JASANGARRIAREKIN HARTUTAKO KONPROMISOA BERRITZEA

2030 Agenda lagungarria da tokiko garapen jasangarriaren bide-orria berritzeko, munduko garapen jasangarriarekin hartutako konpromisoa zabalduz.



UDALERRIENTZAKO ERREFERENTZIAK AREAGOTZEA

2030 Agenda mundu mailan eta lurraldez lurralde txertatzen ari denez, horrek esparru berriak eskaintzen dizkie udalerri eta eskualdeei, bai erreferentziak bilatzeko baita sinergiak sortzeko ere.



ZEHARKAKOTASUNA BEHIN BETIKO INDARTZEA

2030 Agendak Garapen Jasangarriaren berezko gai guztiei heltzen die, bere 18 GJHen bitartez, eta horrek eszenario berri bat eskaintzen du tokiko plan eta politiken zeharkakotasuna behin betiko indartzeko, diziplina anitzeko ikuspegi baten bitartez.



TOKIKO GARAPEN JASANGARRIAREN UDAL PLANA KOKATZEA

Tokiko garapen jasangarriaren aldeko politikak finkatu dituzten udalerrien kasuan, 2030 Agenda bereganatzea lagungarria izan daiteke haren birkokapenerako, hau da, Planari izaera estrategikoagoa emateko operatiboa izateari utzi gabe.



INPLIKAZIO POLITIKOA INDARTZEA

2030 Agendak nazioarteko erreferentzia-esparru komun bat eskaintzen du, Garapen Jasangarriaren ikuspuntutik kuestiona ezin daitekeena, eta hori lagungarria da inplikazio politikoa indartzeko.



TOKIKO JASANGARRITASUNERAKO PLANETATIK TOKIKO 2030 AGENDARA

Rio de Janeiroko 1992ko Goi Bileran (Lurraren Goi Bilera) sortutako Agenda 21en kontzeptuak lekua uzten dio Nazio Batuek 2015ean onartu zuten 2030 Agendari. Nahiz eta Agenda 21 eta tokiko Jasangarritasunerako Planak nabarmen finkatu diren udalerri askotan, 2030 Agendak aukera eskaintzen du ikuspegi zabalago batetik Garapen Jasangarriaren kontzeptua biziberritzeko eta eguneratzeko.



KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA LORTZEA

Gizarteak GJHei buruz duen ezagutza maila hazten ari da, eta horrek ahalbidetzen du komunikazioa hobetzea eta ulergarriago egitea.



HIZKUNTZA BERRI BAT SORTZEA PARTE-HARTZE SOZIALERAKO

Gizarteak GJHei buruzko duen ezagutza maila hazten ari denez, hizkuntza berri bat sortu daiteke, ezagunagoa eta erakargarriagoa, gizartearen parte-hartzea bizkortzeko.



FINANTZIAZIO AUKERAK AREAGOTZEA

2030 Agenda txertatzea lagungarria izango da 2030 Agendarekin eta GJHein lotutako finantziazio-esparruetara iristeko.

GIDAREN AURKEZPENA ETA EGITURA

AURKEZPENA

Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda Nazio Batuen Erakundeak Pertsonen, Planetaren eta Oparotasunaren alde onartutako plana da; halaber, helburutzat hartzen du Bake unibertsala, Lankidetzaren eta Justiziaren iristeko bidea sendotzea.

2015ean onartuta, 2030 Agendak zenbait konpromiso hartzen ditu ezinbestekotzat Planetaren Garapen Jasangarriaren esparruan, adibidez Klima-aldaketa buruzko **Parisko Akordioa**; aldi berean, bat dator udal mailako beste erreferente batzuekin, hala nola **Hiri Agenda Berriarekin**. Honek 2030 Agendako GJH batzuei heltzen die, batez ere **11. GJHari: Hiri eta komunitate jasangarriak**. Helburua da hiri eta komunitateak seguruak, inklusiboak eta erresilienteak izatea lortzea.

11. GJHtik harago, Nazio Batuen Erakundeak onartutako 2030 Agendak **17 helburu** planteatzen ditu **Garapen Jasangarriaren Helburu** gisa, eta horiei lotuta **169 helmuga**, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorretan. Horiek izango dira munduko garapen-programak gidatuko dituztenak datozen urteetan. Horrekin batera, **232 jarraipen-adierazle** planteatzen ditu helmuga horietarako.

GJHak juridikoki derrigorrezkoak ez badira ere, espero da gobernuak helburu propiotzat hartzea, helburu hauek munduko konpromisoekin harmonizatzeko iparrorratz gisa erabiliz. Hori eskualde eta toki mailan ere egin daiteke, **betiere kontuan hartuta GJHen irismen eta edukiak eta haien helmugak tokiko testuingurura eta tokiko eskumenetara egokitu behar direla**.

Gainera, GJHak lantzeari dagokionez, Nazio Batuen Erakundeak funtsezkotzat jotzen du helburuen lorpenean egindako aurrerapenen jarraipena egitea eta aurrerapen horiek aztertzea, datu fidagarri, eskuragarri eta egokien bitartez.

Euskadiren kasuan, argi dago euskarak eta euskal kulturak garrantzi handia dutela lurraldearen garapenean eta pertsonengan. Hori dela eta, Udalsarea 2030ek eta hura osatzen duten udalerriek bere egin dute 18. GJHa, hizkuntza eta kultura aniztasuna bultzatzeari buruzkoa.

Aurrerantzean, gida honetan EAEko udalerrietarako erreferentziazko 18 GJHak aztertuko dira.

Horregatik guztiagatik, Gida honen helburua da TOKIKO 2030 AGENDA lantzeko beharrezkoak diren jarraibideak eskaintzea. Abiapuntua da GJHak eta haien Helmugak udalerrien testuingurura egokitzea. Halaber, Garapen Jasangarriaren Adierazleak udal testuingurura egokitzen laguntzen du, udalerriek GJHei egiten dieten ekarpena neurtzeko jarraibideak eskaintzeaz batera.

Udalerriek hainbat urte daramatzate Garapen Jasangarriaren alde lan egiten, bai plangintza estrategikotik baita plangintza sektorialetik ere; horregatik, Gida honen abiapuntuko premisa da jadanik egindako lanaren balioa nabarmentzea, eta, horrekin batera, ahaleginak 2030 Agendak planteatzen dituen erronketarantz berrorientatzea.

Estatu mailan, Garapen Jasangarriako Espainiar Sareak **“Garapen Jasangarriaren Helburuak Espainiako 100 hiritan”** izeneko txostenaren lehenengo edizioa prestatu du, eta ondorioetan nabarmentzen du hiriek eta udalerriek ezinbesteko rola jokatzeko dutela nazioarteko helburuak lortzeko; horrekin batera, aldaketarako ekintza eraginkorrak abiatzeko eskatzen die alkateei.

Euskadin, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendari heldu dio jadanik, **EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 AGENDA**ren bitartez, eta Foru Aldundiek ere berenganatu egin dute eta bultzatzen ari dira.

Bestalde, **Udalsarea 2030, Udalerri Jasangarrien Euskal Sareak**, sareko ukide diren udalerriek 2030 Agendari eta GJHei egindako ekarpena aztertzen du lhobek argitaratutako [*“Euskal udalerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei”*](#) borondatezko txostenetan.

GIDAREN EGITURA

Gida hau 5 urratsetan egituratzen da eta hauek osatutakoan, udalerriek TOKIKO 2030 AGENDA bat izango dute. Honekin udalerri bakoitzak Garapen Jasangarrien Helburuei egiten dion ekarpenaren jarraipena egiteko aukera izango dute.

Udalerri bakoitzak prozesua lantzerakoan, abiapuntu eta ikuspegiaren arabera ez da beti guztiz beharrezkoa izango 1. URRATSETIK hasia eta 5. URRATSAREKIN bukatzea; izan ere, URRATSAK beste ordena batez egin daitezke, edo modu partzialean soilik, kasu bakoitzaren beharren arabera.

Gida hau ERANSKIN batzuekin osatzen da. Eranskin horiek GIDAREN orrialdeetan aipatzen dira, beharrezkoa denean, eta lagungarriak izango dira prozesurako.

NOLA LANDU TOKIKO

2030 AGENDA

URRATSEZ URRATS



1. URRATSA

Nola heldu
Tokiko 2030
Agenda lantzeko
prozesuari

2. URRATSA

Garapen
Jasangarriaren
Helburuak
(GJH) tokiko
errealitatetik
ezagutzea



4. URRATSA

Tokiko 2030
Agendaren Plana
lantzea

3. URRATSA

Tokiko 2030
Agendaren
estrategia
formulatzea



5. URRATSA

Udalerriak Garapen
Jasangarriaren
Helburuei egiten
dien ekarpena
neurtzea

1. URRATSA



Nola heldu Tokiko 2030 Agenda lantzeko prozesuari

**Urrats honek erraztuko du Tokiko 2030 Agenda
lantzeko prozesuari buruzko erabakiak hartzea**

Tokiko 2030 Agenda lantzeko prozesua nola egin zehazteko xedez, kapitulu honetan **GHJk kontutan izanik TOKIKO EKINTZA MAPEATZEN** da.

Kontuan hartu behar da udalerrietan zenbait motatako planak daudela ezarrita, eta horietako askok jadanik egiten dietela ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei; halaber, kontuan hartu behar dira planen indarraldia eta euren tamainagatik udalerriek dituzten errealitateak. Horregatik, Gida honetan **TOKIKO 2030 AGENDA**ri heltzerakoan abiapuntu eta ikuspegi desberdinak egon daitezkeela kontsideratu da:



UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2030 AGENDAREKIN UZTARTZEA

Udalerri baten plan estrategikoak mota askotakoak izan daitezke, batez ere udalerriaren tamainagatik; baina orokorrean, ezaugarri propioak izan ohi dituzte, hala nola etorkizunerako erreferentziazko urte bat, baita IKUSPEGI BAT, BALIOAK eta HELMUGAK ere... Kasu horretan, batez ere plana orain dela gutxi onartu bada edo indarraldi luzea badu, udalerriak aukera dezake bere TOKIKO 2030 AGENDA eraikitzea bere plan estrategikoa Garapen Jasangarriaren Helburuekin uztartuz, hau da, ildo beretik eramanez, planaren edukia helburu horien arabera egokituz eta osatuz.



TOKIKO JASANGA- RRITASUNERAKO PLANA PLANA 2030 AGENDAREKIN UZTARTZEA

Udalerri askok Agenda 21eko edo Tokiko Jasangarritasunerako Planak dituzte edo izan dituzte. Euskadin, adibidez, Plan horietako asko bigarren edo hirugarren belaunalditik ere pasatu dira, eta horrek, haien finkatzea laguntzeaz gain, bidea eman du eremu zehatzagoak jorratzen dituzten planak integratzeko, edo, kasu batzuetan, Planaren irismena handitzeko, izaera integralagoa emanez, abiapuntuan gehienbat ingurumen-izaerako ikuspegia izan arren.

Aurreko kasuan bezala, Tokiko Jasangarritasunerako plana zer inplementazio-fasetan dagoen kontuan hartuta, oinarritzat hartu ahal izango da 2030 AGENDArekin uztartzeko, Garapen Jasangarriaren Helburuetara egokituz, eta, hortaz, TOKIKO 2030 AGENDA osatuz.



TOKIKO 2030 AGENDA HASIERATIK LANTZEA

Ez badago erreferentziazko Planik 2030 AGENDArekin uztartzeko, bai existitzen ez delako, edo bai existitzen dena indarririk gabe geratu delako, aukeran dagoen beste ikuspegia da TOKIKO 2030 AGENDA zerotik abiatuta lantzea.



Kasua zeinahi delarik ere, TOKIKO 2030 AGENDAK hirurentzat eskaintzen ditu sostengua eta jarraibideak TOKIKO 2030 AGENDA lantzeko. Dena dela, udalerri bakoitzak erabaki dezan zein den bere beharrei gehien egokitzen zaien ikuspegia eta zein izango den plana lantzeko modua, kasu guztietan gomendatzen da 18 GJHetarako edo horietako baterako jadanik lagungarriak diren udalerriko planak, proiektuak eta ekimenak mapeatzea eta identifikatzea, hori abiapuntutzat hartzeko TOKIKO 2030 AGENDAri heltzeko moduez erabaki aurretik.

Tokiko ekintza mapeatzea, GJHei dagokienez: indarrean dauden plan eta politiken artean, zeintzuk dira lagungarriak GHJak lortzeko?

Udalerrietan izaera eta irismen desberdineko plangintza-tresnak egoten dira indarrean; kasu askotan, baina, azkenean beharrezkoa izaten da horiek koordinatzea, eta zenbait kasutan irismen handiagoko planetan integratu ere egitea, kudeaketa eraginkorra bermatzeko xedez, bai planen ikuspuntutik beretik eta bai horiei atxikitako koordinazio- eta jarraipen-mekanismoen ikuspuntutik. Udalerriaren tamaina ere oso faktore garrantzitsua izaten da, normalean nolabaiteko korrelazioa egoten baita udalerriaren tamainaren eta indarrean dauden planen kopuruaren artean.

Atal honetan aurkezten da, orientazio moduan, udalerrietako planek GJHei egiten dieten ekarpenaren mapaketa orokor bat; izan ere, mapaketa orokor hori erreferentziatzat hartu daiteke udalerri bakoitzaren mapaketa egiterakoan.

Udalerri txikien kasuan, kontuan hartu behar da, gainera, plan horietako asko eskualde-erakunde batetik bideratzen direla, baina haien inguruan kontsiderazio berdina egin daiteke GJHei egiten dieten ekarpenari dagokionez.

Mapaketa honetan 2 Plan mota bereizten dira:



ZEHARKAKO IZAERA DUTEN PLANAK

Zeharkako izaera duten planak: hemen sartzen dira, alde batetik, jorratzen dituzten arloen dimentsioagatik zeharkako izaera garbia duten planak, hala nola Plan Estrategikoak eta Legegintzaldiko Planak, eta, bestetik, jorratzen duten gaiagatik zeharkako izaera dutenak, hala nola Berdintasun Planak edo klima-aldaketa arintzeko Planak.


Tokiko Jasangarritasunerako Planen kasuan, euskal udalerrietan presentzia handia duten bi tipologia aurkitzen ditugu: ingumen izaera dutenak eta izaera integrala dutenak, hau da, alderdi sozialak eta/edo ekonomikoak ere txertatu dituztenak. Gainera, bi kasuetan kontuan hartu behar da udalerrri batzuek jadanik integratu dituztela euren Tokiko Jasangarritasunerako Planen arlo konkretuagoak jorratzen dituzten planak; adibidez: mugikortasun jasangarria edo kutsadura akustikoa jorratzen dituzten planak.

ARLO ESPEZIFIKOAK JORRATZEN DITUZTEN PLANAK

Udal kudeaketaren arlo espezifikoagoak jorratzen dituzten planak; hemen sartzen dira izaera sektorial nabaria duten eta euren ekintzak gehienbat arlo konkretu batera zuzentzen dituzten planak.

Ez da barne sartu Hiri Antolamenduaren kasu partikularra, zeren beraren egitura desberdina baita gainerako udal planen aldean; nolanahi ere, garbi dago funtsezko tresna bat dela aldaketa garrantzitsuak toki mailan egiteko, eta plan askok badituzte irizpide espezifikoak Hiri Antolamenduan sartzera daramaten ekintzak.

Oharra: planen zerrenda eta ondorengo tauletan proposatzen den sailkapena ez dira nahitaez exhaustiboak. Izan ere, helburua da orientabide gisa funtzionatzea, GJHei udalerrri bakoitzean jadanik ekarpena egiten dieten planen mapaketa egiterakoan.



ZEHARKAKO IZAERA DUTEN PLANAK

Zeharkako izaera duten Udal Planek GJHei egin diezaieketen ekarpena.

PLAN ESTRATEGIKOA



18. GJH



TOKIKO JASANGARRITASUNERAKO PLANA (INGURUMENEOA)



9. GJH



LEGEINTZALDIKO PLANA



18. GJH



KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO PLANA



4. GJH



TOKIKO JASANGARRITASUNERAKO PLANA (INTEGRALA)



18. GJH



KLIMA-ALDAKETARI EGOKITZEKO PLANA



8. GJH




- 1 Pobrezia desagerraraztea
- 2 Goserik ez
- 3 Osasuna eta ongizatea
- 4 Kalitatezko hezkuntza
- 5 Genero berdintasuna
- 6 Ur garbia eta saneamendua


- 7 Energia irigarria eta ez kutsagarria
- 8 Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
- 9 Industria, berrikuntza eta azpiegitura
- 10 Desberdinkeriak murriztea
- 11 Hiri eta komunitate jasangarriak
- 12 Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

- 13 Klimaren aldeko ekintza
- 14 Itsaspeko bizitza
- 15 Lehorreko ekosistemetak bizitza
- 16 Bakea, justizia eta instituzio sendoak
- 17 Helburuak lortzeko aliantza
- 18 Hizkuntza eta kultura aniztasuna


SMART CITY PLANA




GAZTERIA PLANA




BERDINTASUN PLANA




EUSKARA PLANA




GIZARTE-INKLUSIORAKO PLANA



ENPLEGUA SUSTATZEKO PLANA




IMMIGRAZIO PLANA




ARLO ESPEZIFIKOAK JORRATZEN DITUZTEN PLANAK

Arlo espezifikoetako Udal Planek GJHei egin diezaieketen ekarpena.


ENERGIA JASANGARRIRAKO EKINTZA PLANA (EJEP)




KUTSADURA AKUSTIKOARI BURUZKO PLANA




MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN PLANA




BIODIBERTSITATE PLANA



HONDAKINEI BURUZKO PLANA



EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUKO PLANA




- 1 Pobrezia desagerraraztea
- 2 Goserik ez
- 3 Osasuna eta ongizatea
- 4 Kalitatezko hezkuntza
- 5 Genero berdintasuna
- 6 Ur garbia eta saneamendua


- 7 Energia irisgarria eta ez kutsagarria
- 8 Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
- 9 Industria, berrikuntza eta azpiegitura
- 10 Desberdinkeriak murriztea
- 11 Hiri eta komunitate jasangarriak
- 12 Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

- 13 Klimaren aldeko ekintza
- 14 Itsaspeko bizitza
- 15 Lehorreko ekosistemetak bizitza
- 16 Bakea, justizia eta instituzio sendoak
- 17 Helburuak lortzeko aliantza
- 18 Hizkuntza eta kultura aniztasuna


ETXEBIZITZA PLANA




LEHEN SEKTOREA SUSTATZEKO PLANA




LANKIDETZA PLANA



TURISMO PLANA



MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN BEREZIA (PERCO)



2. URRATSA



Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) tokiko errealitatetik ezagutzea

Urrats honen bidez, hobeto jakingo dugu zer GJHri
heltzen zaion udal kudeaketaren arloetatik, arlo
bakoitzak zer GJH jorratzen duen zehaztuz

2015ean onartutako **Garapen Jasangarriaren 17 Helburuak (GJH)**


Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) ondorengoak dira, eta hauekin lortutako arrakastak areagotu nahi dituzte, lortu ez ziren helmugak lortzeaz batera.

Helburu berri hauen berezitasuna da **oparotasuna sustatzeko eta –aldi berean– planeta babesteko** neurriak hartzeko eskatzen dietela herrialde guztiei, bai aberatsei, bai pobreei eta bai diru-sarrera ertainak dituztenei.

Atal honetan azaltzen da nola egoitzen diren GJHen irismena eta edukiak eta haien helmugak udalerrien testuingurura eta haien eskumen partikularretara.

Egokitzapen horren ondorioz, 18 GJHak garatzen dituzten 169 helmugetatik **erreferentziazko 95 helmuga** identifikatu dira udalerrientzat.

Ondorengo bi tauletan aurkezten dira, aurrena, GJH bakoitzerako identifikatutako helmugak eta haien kopurua, eta horren ostean helmuga horiek jorratzen dituzten arloen laburpena, GJH bakoitzerako.



Euskal udalerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren II borondatezko

txostenean, 80 Helmuga horiek bi multzotan sailkatzen dira: EAEn orokorrean jadanik jorratzen ari direnak, eta udalerrientzat erronka berriak planteatu ditzaketenak (Txostenaren 4. atala).

I. Eranskinak –GJHak euskal udalerrien testuingurura

hurbiltzea– azterketa zehatzago bat aurkezten du, testuinguruan kokatuagoa, TXOSTEN horretan egindako azterketan oinarrituta. Eranskin hori erabilgarriagoa da Tokiko Jasangarritasunerako Plana duten edo izan duten euskal udalerrientzat.

II. Eranskinak –Udalerrientzat erreferentziazkoak diren 95

helmugak– 95 helmugen erredakzio osoa jasotzen du.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAK PROPOSATUTAKO 169 HELMUGETATIK UDALERRIENTZAT ERREFERENTZIAZKOAK DIREN 95 HELMUGAK

1  POBREZIA DESAGERRARAZTEA	 6 helmuga, 7 helmugatatik	1.1 1.2 1.3 1.4 1.5 1.b
2  GOSERIK EZ	 3 helmuga, 8 helmugatatik	2.1 2.3 2.4
3  OSASUNA ETA ONGIZATEA	 6 helmuga, 12 helmugatatik	3.4 3.5 3.6 3.7 3.9 3.a
4  KALITATEZKO HEZKUNTZA	 8 helmuga, 10 helmugatatik	4.1 4.2 4.3 4.4 4.5 4.6 4.7 4.a
5  GENERO BERDINTASUNA	 6 helmuga, 8 helmugatatik	5.1 5.2 5.4 5.5 5.b 5.c
6  UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	 7 helmuga, 8 helmugatatik	6.1 6.2 6.3 6.4 6.5 6.6 6.b
7  ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	 3 helmuga, 5 helmugatatik	7.1 7.2 7.3
8  LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	 7 helmuga, 12 helmugatatik	8.2 8.3 8.4 8.5 8.6 8.8 8.9
9  INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	 4 helmuga, 8 helmugatatik	9.1 9.2 9.3 9.4

10  DESBERDINKERIAK MURRIZTEA	 3 helmuga, 10 helmugatatik	10.2 10.3 10.4
11  HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	 8 helmuga, 10 helmugatatik	11.1 11.2 11.3 11.4 11.5 11.6 11.7 11.a
12  EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	 8 helmuga, 11 helmugatatik	12.2 12.3 12.4 12.5 12.6 12.7 12.8 12.b
13  KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	 3 helmuga, 5 helmugatatik	13.1 13.2 13.3
14  ITSASPEKO BIZITZA	 2 helmuga, 10 helmugatatik	14.1 14.5
15  LEHORRREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	 8 helmuga, 12 helmugatatik	15.1 15.2 15.3 15.4 15.5 15.8 15.9 15.a
16  BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	 6 helmuga, 12 helmugatatik	16.1 16.5 16.6 16.7 16.10 16.b
17  HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA	 3 helmuga, 19 helmugatatik	17.2 17.14 17.18
18  HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA	 4 helmuga, 7 helmugatatik	18.1 18.4 18.5 18.6

UDALERRIENTZAT ERREFERENTZIAZKOAK DIREN HELMUGEI HELTZEN DIETEN ARLOEN LABURPENA

HELBURUAK

1



POBREZIA DESAGERRARAZTEA

Helburu honek, besteak beste, kolektibo jakin batzuen pobrezia eta kalteberatasuna jorratzen ditu, eta, alde horretatik, pobrezia identifikatzeko eta haren aurka borrokatzeko beharra planteatzen du. Halaber, beste gai hauei ere heltzen die: pertsonen ongizatea, zahartze aktiboa, gizarte-baliabideak eskuratzeko eskubidea edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako prestazioak. Gainera, Helburu honek planteatzen du klima-mehatxuen aurrean kalteberak diren kolektiboak identifikatzea.

2



GOSERIK EZ

Helburu honen bitartez haxe lortu nahi da: nekazaritza eta abeltzaintzaren produktibitatea hobetzea eta jarduera horiek ekimen ekologikoetarako bultzatzea, bertoko espezieak dibertsifikatzea, autokontsumorako ortuak eta tokiko ekoizpena sustatzea eta elikadura osasuntsua, elikagarria eta nahikoa bermatzea. Planteatzen du, halaber, elikagaiak eskala txikian ekoizten dituzten nekazaritza-produktibitatea eta diru-sarrerak handitzea.

3



OSASUNA ETA ONGIZATEA

Helburu honen ardatza da bizi-ohitura eta -estilo osasungarriak sustatzea, kalitate akustikoa hobetuz, eta kutsadura elektromagnetikoa eta mugikortasun eta garraioarekin zerikusia duen guztia kontrolatuz eta haien jarraipena eginez. Horrekin batera, gaixotasun jakin batzuen eta trafiko-istripuen prebentzioari heltzen dio, eta sexu- eta ugalketa-zerbitzuak eskuratzeko bidea erraztearen alde egiten du. Substantzia adiktiboen abusuaren prebentzioa eta tratamendua barneratzen ditu baita ere.

4



KALITATEZKO HEZKUNTZA

Helburu honi dagokionez, udalerrietatik jorratu daitezkeen alderdiak honako hauek dira, hezkuntza instalazio eta ingurune seguruak, indarkeriarik gabekoak, inklusiboak eta pertsona guztientzako eraginkorrak eskaintzea.

5



GENERO BERTINTASUN

Helburu honen ardatzak honako hauek dira: berdintasun-politiken garapena sustatzea; emakume eta nesken ahalduntzea maila pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoan sostengatzea eta bultzatzea; eragile guztiak inplikatzeko eskubideak bermatzeko eta gizarte-eredu jasangarriago eta berdintasun handiagokoa lortzen laguntzeko. Gainera, barne hartzen du emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta haren biktimentzako arreta integrala.

6



UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

Helburu honek baliabide hidrikoen kontrola eta kudeaketa jorratzen ditu, ur-kontsumoa arrazionalizatuz, kutsadura-arriskua murriztuz eta aisialdi, kirol eta jai ekimenetan erabiltzen diren uren kalitatea bermatuz. Gainera, planteatzen du mugaz gaindiko lankidetzak kontsideratzea, egokitzat jotzen denean, baliabide hidrikoak modu integratuan kudeatzeko; planteatzen du, halaber, tokiko komunitateen parte-hartzea sostengatzea eta sendotzea uraren kudeaketa eta saneamendua hobetzeko.

7



ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA

Helburu honek planteatzen du aurrera egitea tokiko energia-iturri garbi eta berriztagarrien erabilera, kontsumoa arrazionalizatzea eta efizientzia energetikoa handitzea, eta, horrekin batera, herritarren pobrezia eta kalteberatasun energetikoa murriztea.

8



LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Helburu honi tokiko garapen ekonomikoaren bidez heldu behar diote udalerriek, enpresa-ehunaren kultura ekintzaile, berrikuntza, lan-eskubideak, lan-ingurune seguruak eta ingurumen-kalitatearen bitartez. Halaber, barne hartzen ditu gizarte-ekonomia eta turismo jasangarriaren bultzada eta laneratzearen sustapena, egoera txarragoan dauden kolektiboei arreta berezia zuzenduz. Horrez gain, planteatzen du neurriak zuzentzea lanik egiten ez duten, ikasi gabe dauden eta prestakuntzarik hartzen ez duten gazteei.

9



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Helburu honek planteatzen du udalerriko jardueretan eragina duten arriskuak prebenitzeko araudiaren betearazpena bermatzea, eta, halaber, jardueren ingurumen-jokabidea eta haien lege-egokitzapena hobetzea, baita industrializazio inklusiboa eta iraunkorra ere. Gainera, garapen ekonomikoari laguntzeko azpiegitura fidagarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea ere barne hartzen du.

10



DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

Helburu honek alderdi hauek jorratzen ditu: herritar immigranteen gizarte-inklusihoa eta osoko integrazioa; aukera-berdintasuna biztanleriaren sektore guztientzat sustatzea; haurren eskubideak bermatzea; eta etxebizitza libre eta babestuen konbinazio egokia sustatzea.

11



HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

Helburu hau da udalerrietara gehien orientatzen dena, zeren eta, besteak beste, honako alderdi hauei heltzen baitie: kutsadura atmosferikoa; arriskuak ezagutzea, kontrolatzea eta prebenitzea; kultura parte-hartzailea sustatzea; etxebizitzaren birgaikuntza eta hiri-berroneratzea bultzatzea; eta ekipamendu eta berdeguneen zuzkidura bermatzen duen hiri-antolamendu jasangarria segurtatzea, ondare historiko, arkitektoniko, industrial eta naturalaren kontserbazioaz arduratzeaz gain. Gainera, balizko hondamendiek sor lezaketen inpaktu ekonomiko eta sozialak murriztea planteatzen du.

12



EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

Helburu honetatik, udal administrazioaren ingurumen-kudeaketari heltzen zaio, honako hau barne sartuta: erosketak eta kontratazio publiko berdea, kontsumo arduratsuaren sustapena eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa. Horrez gain, elikagaien alferrikako galeraren aurkako borroka planteatzen du sektore guztietanguztietan, baita turismo iraunkorra sustatzea ere.

13



KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Helburu honek gai hauei heltzen die: klima-aldaketari buruzko tokiko ekintzaren plangintza eta kudeaketa aktiboa; berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketarantz aurrera egiteko konpromiso irmoak hartzea; eta udalerria klima-mehatxuetatik ondorioztatzen diren inpaktuetara egokitzearen plangintza.

14



ITSASPEKO BIZITZA

Nahiz eta udalerriek ez duten Helburu honen helmuga gehienengoa inguruko eskumenik, badute ahalmena alderdi batzuei heltzeko, hala nola: itsasora heltzen diren baliabide hidrikoen kutsatze-arriskua murriztea; itsas eremuaren eta beraren kulturaren balioa nabarmentzea; arrantza-sektorearen lehiakortasunaren alde egitea eta herritarrak haren kontserbazioaren garrantziaz sentsibilizatzea. Gainera, Helburu honek planteatzen du lehorrean gauzatzen diren jarduerak eragindako itsas kutsadura prebenitzea eta neurri esanguratsuan murriztea, eta kostaldearen eta itsas eremuen kontserbazioa, lege nazionalarekin bat etorritik eta eskura dagoen informazio zientifikoa onena oinarritzat hartuta.

15



LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Helburu honek gai hauei heltzen die: ekosistemen eta haien zerbitzuen mantenua eta lehengoratzeko; natura-ondarearen kudeaketa eraginkorra eta efiziente; eta naturaren ezagutza eta kulturaren sustapena. Gainera, Helburu honetan jorratzen da kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen gaineko kontrola. Halaber, beste alderdi hauek ere jorratzen ditu: baso mota guztien kudeaketa jasangarria gauzatzea, mendi-ekosistemen kontserbazioa segurtatzea, eta ekosistemen balioak eta biodibertsitatea udal plangintzan integratzea.

16



BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

Helburu honek bizikidetzarekin, herritarren segurtasunarekin, kultur aniztasunarekin eta bakearekin lotutako alderdiak jorratzen ditu, baita beste gai hauek ere: kontuak ematea, gardentasun instituzionala, ustelkeria murriztea, informazioaren eskuragarritasuna, sailen arteko koordinazioa, jasangarritasunarekin lotutako beste erakunde edo ekimenekiko koordinazioa, batez ere Eskolako 2030 Agendarekin. Halaber, erabaki hartze inklusiboak, parte-hartzaileak eta adierazgarriak barneratzen ditu, eta garapen jasangarriaren aldeko politikak sustatzea.

17



HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA

Helburu honek jorratzen dituen alderdi gehienak ez dira udal eskumenekoak, eta, hortaz, udalerriek haren alde egin dezaketen ekarpena honako hau da, funtsean: garapen jasangarriko politiken koherentzia mantentzea eta sendotzea, beste erakunde batzuekiko koordinazioa eta Sare-lanak finkatzeaz batera. Beste alde batetik, udalerriek elkartasun-jarduera sustatu dezakete, eta, halaber, nazioarteko lankidetzarako ekintzak bultzatu eta truke kultural, kooperatibo eta solidarioak sustatu.

18



HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA

Helburu honek euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea du helburu, bai erakunde barruan, bai herritarren artean ere, eta horretarako beharrezkoak diren politikak ezartzea. Gainera, euskal kulturaren eta kultura-aniztasuna lantzen da.

3. URRATSA



Tokiko 2030 Agendaren estrategia formulatzea

**URRATS honek ahalbidetuko du UDAL ESTRATEGIA
bat izatea TOKIKO 2030 AGENDArako**



Atal honetan gomendioak proposatzen dira formulazio estrategikoaren osagai izaten diren bi elementuren erredakzio edo egokitzapenerako:

IKUSPEGIA eta **XEDEAK**;
dena dela, beste elementu
batzuk edukiz gero, hala nola
EGINKIZUNA, BALIOAK edo
ERRONKAK, IKUSPEGIraiko
eta XEDEetarako ariketa
egin ondoren gainerako
elementuetara ere hedatu ahal
izango da lana.

Gainera, erabil litekeen **Aginte-Koadro Estrategiko** bat proposatzen da, Garapen Jasangarriaren udal adierazleak Zerrendatik ondorioztatua (IV. Eranskina).

Elementu hauek plana lantzerakoan definitzen dira, eta hainbat eragilek – pertsonal politikoak, pertsonal teknikoak eta eragile sozialek– konpartitutako hausnarketa baten ondorio izaten dira; horrenbestez, udalerrri bakoitzak baloratu ahal izango du zer unetan berrikusi behar duen bere testua, 2030 Agendaren ildora egokitzeko.

Ikuspegia adierazpen sintetiko bat izaten da, ideia orokor multzo batez konfiguratua; erreferentziazko esparru bat eskaintzen du, beraren bidez irudikatzeko nolakoa izan beharko litzatekeen –gure ustez– udalerria hemendik urte batzuetara.

Etorkizunerako Ikuspegiak norabidea ezartzen du, hau da, adierazten du norantz egin nahi den aurrera Planaren garapen orokorraren bidez, helburua guztiz lortu ezin izan arren.

Tokiko 2030 Agenda lantzeko prozesuan, irizpide hauek kontsideratu daitezke:



ERREFERENTZIAZKO URTEA

Ahal izanez gero, ona izango litzateke 2030. urtea erreferentziazkat hartzea, 2030 Agendaren urte berbera izan dadin.

Udalerriak urte urrunago bat hartu badu erreferentziazkat –adibidez: 2050. urtea–, azken hori erreferentzia gisa utz daiteke Ikuspegian, eta 2030. urtea bitarteko erreferentziazko urtetzat hartzea xedeetarako.



GAKO-HITZAK

Jarraian, Ikuspegiaren erredakzioan kontsideratu daitezkeen gako-hitz batzuk iradokitzen dira:

- | | | |
|-------------------------|--|---|
| · Pertsonak | · Elikadura jasangarria | · Herrialdeen arteko desberdintasuna |
| · Oparotasuna | · Ikasteko aukera | · Udalerri seguru, erresiliente eta jasangarria |
| · Planeta | · Genero-berdintasuna | · Kontsumo eta ekoizpen jasangarria |
| · Bakea | · Uraren kudeaketa jasangarria | · Klima-aldaketa arintzea eta berari egokitzea |
| · Lankidetzat | · Energia eskuragarri eta jasangarria | · Lehorreko ekosistemak |
| · Garapen jasangarria | · Enplegu duin eta jasangarria | · Gizarte baketsu eta inklusiboa |
| · Mundua | · Berrikuntza | · Garapenerako laguntza |
| · Ongizatea | · Industrializazio inklusibo eta jasangarria | |
| · Kalteberatasuna | | |
| · Erresilientzia | | |
| · Bizimodu osasungarria | | |



ADIBIDEA

Jarraian, Ikuspegia lehen eta gero irudikatzen duen adibide bat eskaintzen da.

LEHEN

2020. urtean, udalerriak duen **gizarte-garapenak** erabat asetzen ditu **bere herritarren beharrak, ekonomia dinamiko eta berritzailea du, eta beraren natura- eta paisaia-balioak** lagungarriak dira bai **beraren herritarren bizi-kalitaterako** eta bai **beraren ekonomiaren lehiakortasunerako**.

GERO

2030. urtean, udalerriak bermatzen du **pertsonen ongizatea** segurtatzen dituen zerbitzuen eskuragarritasuna, eta **ingurunearekin orekatuta dagoen bizimodu osasungarrirako** lagungarriak diren **natura- eta paisaia-balio nabariak** ditu.

Oparotasun ekonomikoaren eredua **inklusibo eta jasangarria da, eta planetaren garapen jasangarriarekin** dago konprometituta.



ZER ALDATZEN DA?

Erreferentziazko urtea aldatu da, 2020etik 2030era pasatuz, zeren prozesu hau Planaren eguneraketa bat izan baitaiteke berez, haren indarraldia luzatuz.

Eremu estrategikoei buruzko erreferentziak mantendu dira, baina hizkuntza egokitu da 2030 Agendari atxikitako gako-hitzetara, honako kontzeptu hauek erantsiz: **pertsonen ongizatea, oparotasun ekonomikoa edo planetaren garapen jasangarria**.

XEDEAK helburu kuantitatibo gisa planteatu ohi dira, erronka kualitatiboak osatuz. Planaren ezarpenaren amaieran lortzekoak dira. Haien jarraipena bermatzeko, xedeak adierazle kalkulagarriekin lotzen dira. Xedeek bat etorri behar dute helburu eta erronka estrategikoekin.

Zeregin honetarako, honako hau har daiteke kontuan:

– **II. ERANSKINA. Udalerrientzat erreferentzia diren 95 Helmugak.**

Horien testu osoa erreferentziatztat har daiteke udalerriko xedeen erredakziorako.

– **Eta jarraian definitzen den aginte-koadro estrategikoa.**

TOKIKO 2030 AGENDA lantzeko prozesuan, jarraian ageri diren irizpideak kontsideratu daitezke XEDE berriak erredaktatzerakoan edo jadanik jarrita dauden XEDEAK berraztertzerakoan:



ERREFERENTZIAZKO URTEA

2030 Agendaren xede askotan 2030 urtea hartzen da erreferentziatztat; beraz, GJHak bere egin direla bistaratzeko, gomendagarria da 2030. urtea erreferentziatztat hartzea xedeetarako.



JARRAIPENAREN ADIERAZLEAK

Ondorengo atalean, TOKIKO 2030 AGENDAREN AGINTE-KOADRO ESTRATEGIKOA konfiguratu lezaketen 32 adierazle aurkezten dira. Adierazle horiek Gida honen IV. ERANSKINEAN daude jasota. Ahal den neurrian, gomendagarria izango da ezartzen diren xedeak aginte-koadro horretan sartuta egotea.



ERREDAKZIO EREDUA

XEDEAK erredaktatzerakoan, Gida honen II. ERANSKINA hartu ahal izango da erreferentziatztat. Izan ere, bertan aurkezten dira udalerrientzat erreferentzia gisa identifikatu diren 95 HELMUGAK.



XEDE BERRI BATEN ERREDAKZIOAREN ADIBIDEA, NAZIO BATUEN HELMUGETATIK ABIATUTA

HELMUGA GLOBALA

5.2 Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria mota guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne.

TOKIKO ESKALARA EGOKITUTAKO XEDEA

2030. urterako, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen kopurua Ora murriztea.

Kasu honetan, erreferentziazko helmuga **5.2. helmuga** izango litzateke (**II. Eranskina**), eta helmuga kuantifikatzeko erabili beharreko adierazlea **10. Izango litzateke: Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak** (5.Taula. Aginte-koadro estrategikoa).



JADANIK JARRITA DAGOEN XEDE BATEN EGOKITZAPENAREN ADIBIDEA

LEHEN

Udalerriko ur-kontsumoa % 10 murriztea.

GERO

2030. urterako, uraren erabilera efizientea nabarmen handitzea etxebizitzaren sektorean, etxeko ur-kontsumoa % 10 murriztera iritsi arte.

Kasu honetan, erreferentziazko helmuga **6.4. helmuga** izango litzateke (**II. Eranskina**), eta haren kuantifikaziorako erabiliko litzatekeen Adierazlea 11. adierazlea: **Etxeko ur-kontsumoa biztanle eta egun bakoitzeko** (5. Taula. Aginte-koadro estrategikoa).



ERREDAKZIO EREDUA

Udalerriko ur-kontsumoa Adierazlearen orde (05_03 Adierazlea: ur eskari osoa) 05_01 Adierazlea (etxeko ur-kontsumoa biztanle eta egun bakoitzeko) jartzean, datu alderagarriago eta ulergarriago bat erabiltzen da; gainera, alderatu ahal izango da **Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen Ekarpina Garapen Jasangarriaren Helburuei** txostenean argitaratutako batez besteko datuarekin.

Gainera, erreferentziazko urtea gehitu da, 2030, eta erabilera efizientea nabarmen handitzea dioen esaldia gehitu da, hots, GJHen 6.4. helmugatik hartutako esaldia (II. Eranskina).

AGINTE-KOADRO ESTRATEGIKOA

Garapen Jasangarriaren udal adierazleetan oinarritutako AGINTE-KOADRO bat izateko xedez, TOKIKO 2030 AGENDAREN estrategiari buruzko ikuspegi global bat eman dezaketen **32 adierazle** azpimarratzen dira, **AGINTE-KOADRO ESTRATEGIKOA** osatu dezaketelakoan. Multzorik hori maximoen proposamen gisa kontsideratu behar da, hau da, udalerri bakoitzak horietako batzuk baloratu eta aukeratu ditzake, TOKIKO 2030 AGENDAREN bitartez esku hartzeko.

Proposatutako 32 adierazleak **IV. Eranskinetik** datoz: **GJHei lotutako udal Garapen Jasangarriaren adierazleen zerrenda**. Eranskin horrek aurkezten du Udalsarea 2030 osatzen duten udalerrientzat jadanik eskura dagoen Garapen Jasangarriaren Adierazleen zerrenda.

AGINTE-KOADRO ESTRATEGIKOA OSATU DEZAKETEN GARAPEN JASANGARRIAREN 32 ADIERAZLEAK


 POBREZIA DESAGERRARAZTEA	1. Pobrezia eta gizarte-bazterketa. 2. Pobrezia maila – gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen dituzten pertsonak.
 GOSERIK EZ	3. Lehen sektorearen Balio Erantsi Gordina.
 OSASUNA ETA ONGIZATEA	4. Emakumeen bizi-itxaropena. 5. Gizonen bizi-itxaropena.
 KALITATEZKO HEZKUNTZA	6. Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten pertsonak. 7. Unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak.
 GENERO BERDINTASUNA	8. Udal korporazioan dauden emakumeen ehunekoa. 9. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak.
 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	10. Etxebizitzetako ur-kontsumoa biztanle eta egun bakoitzeko. 11. Kontsumorako uraren kalifikazio sanitarioa.
 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	12. Energia elektrikoaren kontsumoa biztanle eta urte bakoitzeko. 13. Energia berriztagarrien ekoizpena.



- 14. Langabezia-tasa.
- 15. BPG biztanleko.



- 16. Ingurumena kudeatzeko tresnen ezarpen maila.



- 17. Babestutako etxebizitza-parkea.
- 18. Immigrazio-tasa.



- 19. Lurzoru artifizializatua.
- 20. Parke, lorategi eta hiri-berdeguneek hartzen duten azalera.
- 21. PM₁₀ Partikula esekien kontzentrazioa.



- 22. Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorrera biztanle bakoitzeko.
- 23. Etxeko eta merkataritzako hondakinen gaikako bilketaren tasa.
- 24. Erosketa eta kontratazio publiko berdea: ingurumen-klausulak dituzten lizitazioen kopurua.



- 25. Udalerrietako berotegi-efektuko gasen emisioak, biztanle eta urte bakoitzeko (industria eta lehen sektorea kanpo).



- 26. Estuarioetako uren kalitatea: egoera ekologikoa.
- 27. Kostaldeko uren kalitatea: egoera ekologikoa.



- 28. Babes bereziko azalera, udalerriaren osoko azalera erreferentziazat hartuta.



- 29. Aurrekontu parte-hartzaileak.



- 30. Garapenerako nazioarteko lankidetzara zuzendutako udal aurrekontua.
- 31. Garapen jasangarriarekin lotutako sare eta aliantzetan udalerriak duen parte-hartzea (sare eta aliantzen kopurua).



- 32. Euskararen ezağutza.

4. URRATSA



Urratsa: Tokiko 2030 Agendaren Plana lantzea

URRATS honek ahalbidetuko du EKINTZA PLAN bat izatea TOKIKO 2030 AGENDArako, eta baita haren jarraipenerako Adierazle Sistema bat ere izatea



Normalean, Udal Plan batean sartzen diren ekintzak zenbait mailatan egituratutako Plan baten zati izaten dira. Goitik behera, egituraren asmoa da formulazio estrategikoan definitutako erronka eta xedeak ekintza egingarri eta neurgarrietan islatzea.

Planaren egituratze-mailen kopurua aldatu egiten da batetik bestera. Gida honetan, hiru mailako egitura bat hartzen da erreferentziazat, alegia, hiru maila hauek dituen egitura bat: Ildo Estrategikoak, Jarduera-programak eta Ekintzak.

Jarraian, modu grafikoan aurkezten da 2030 Agenda Globalaren garapenaren – bere 169 helmuga eta 232 adierazleekin – eta Tokiko 2030 Agenda baten garapenaren arteko korrespondentzia, helmuga eta adierazle horiek tokiko testuingurura egokitu eta mugatu ondoren.

Tokiko 2030 Agendarako aurkeztu den garapena bat dator 3. Urratsean jorratu diren Formulazio estrategikoaren elementuekin eta Plana lantzeari begira jarraian emango diren jarraibideekin.

2030 AGENDA GLOBALA



2030 AGENDAREN GARAPENA

169
HELMUGA


Tokiko mailara egokitzea

232
ADIERAZLE

Tokiko mailara egokitzea

Formulazio estrategikoaren kasuan bezala, TOKIKO 2030 AGENDAREN garapenean kontuan hartu behar da pertsonal politiko eta teknikoaren parte-hartzea, eta baita udalerriko eragile sozialen parte-hartzea ere, horiek gero eta hobeto ezagutzen baitute 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriaren 18 helburuak.

TOKIKO 2030 AGENDA



ILDO ESTRATEGIKOAK

Tokiko 2030 Agenda lantzeko prozesuan, formulazio estrategikoa konfiguratzeko duten elementu guztiak berraztertuta eta egokitu ondoren, prozesua jarraitu beharko da Planeko elementuen artetik formulazio estrategikotik gertuen dauden elementuetatik. Horixe da ildo estrategikoen kasua; izan ere, ildo horiek helburu edo ildo nagusiak izaten dira, Planaren garapena gidatzen dutenak ekintzen multzoraino iritsi arte. Ildo

estrategikoek ezartzen dituzten helburuak ulergarriak, espezifikoak eta integratzaileak izan behar dira, eta hobekuntzei lotuta egon behar dira.

Gainera, Ildo Estrategikoak Udal plan baten egituraren maila gorena izan ohi dira.



ADIBIDEA

Jarraian, Ildo estrategikoaren erredakzioaren adibide bat aurkezten da, 2030 AGENDARA egokitu AURRETIK eta horren OSTEAN idatzitako testua alderatuta; adibidea baliagarria izan daiteke bai existitzen diren Ildoak egokitzeko eta bai ildoak erredaktatzeko.

LEHEN

Baliabideak modu arduratsuan kontsumitzea eta hondakinen kudeaketa prebentzioan oinarritzea.

GERO

Kontsumo eta ekoizpen modu jasangarriak sustatzea, hondakinen kudeaketa prebentzioan oinarritzen dela segurtatuz, **haien inpaktua neurri esanguratsuan murrizteko**.



ZER ALDATZEN DA?

“Baliabideen kontsumo arduratsua” esan beharrean “kontsumo eta ekoizpen modu jasangarriak” esaten da (12.GJHa), eta hauxe gehitzen da: “haien inpaktua neurri esanguratsuan murrizteko”. Izan ere, inpaktua udalerritik harago doa, hots, ez da udalerrian geratzen.

JARDUERA-PROGRAMAK

Jarduera-programak helburu operatibo eta espezifikoak dira, helburu estrategikoen lorpenera zuzenduak. Jarduera eta kudeaketa mailan udalerritik garatu behar diren arlo nagusiekin dute zerikusia.



ADIBIDEA

Jarraian, jarduera-programa baten erredakzioaren adibide bat aurkezten da, 2030 AGENDARA egokitu AURRETIK eta horren OSTEAN idatzitako testua alderatuta; adibidea baliagarria izan daiteke bai existitzen diren Jarduera-programak egokitzeko eta bai horiek erredaktatzeko.

LEHEN

Energiaren aurrezpen eta erabilera efizientea sustatzea eta energia berriztagarriak udalerrian txertatzearen alde egitea.

GERO

Energia jasangarri eta modernoa eskuratzearen alde egitea, **efizientzia energetikoa hobetuz eta energia berriztagarriek udalerrian duten proportzioa nabarmen handituz.**



ZER ALDATZEN DA?

“Energia eskuratzearen....” esaldia gehitzen da ...” (7.GJHa), eta 7. GJHtik udalerrientzat identifikatzen diren 3 helmugak aipatzen dira (7.1; 7.2 eta 7.3).

EKINTZAK

Plan baten ekintzak beraren elementu operatiboa dira. Ekintzak **askotarikoak** izan daitezke, eta, hortaz, Ekintza plan batek honako ekintza hauek kontsideratu ditzake, besteak beste: sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekintzak; arau-izaerako ekintzak; finantziazioarekin, diru-laguntzekin eta zerga-pizgarriekin lotutako ekintzak; azterlanak egitea; kudeaketa-ekintzak; ekipamendu eta azpiegiturei buruzko ekintzak; irizpideak udal antolamenduan txertatzeko ekintzak, eta abar; gainera, ekintzek udal kudeaketaren berezko **arlo tematikoak** jorratu ditzakete.

Orokorrean, Planaren elementu operatiboena direnez, EKINTZEN karakterizazioak zenbait elementuren bidez definitzen dira, hala nola: epea, lehentasuna, kostua, edo ekintza udal egituraren baitan bultzatzeko arduradun nagusia.

Zeregin horretan, helburua izango da TOKIKO 2030 AGENDAREN Plana konfiguratuko duten ekintzak erredaktatzea edo egokitzea.

Abiapuntua erreferentziazko plan batetik edo batzuetatik datozen ekintza planifikatuak direnean, ekintza horiek 2030 Agendaren ildora egokitzeko xedez, lehenengo zeregina izango da identifikatzea zer GJHri egiten dion ekarpena ekintza bakoitzak, eta aztertzea ea haren erredakzioa jadanik dagoen GJH horri egokituta edo ea berraztertu behar den, 3. Urratsean egindako formulazio estrategikoarekin ere koherentea izan dadin.

Ekintza bakoitzak zer GJHri egiten dion ekarpen nagusia asigmatzeak bidea emango du geroago jarraipen bat egiteko, 5. Urratsean ikusiko den bezala.

GJH askok zeharkako izaera dutenez, gomendatzen da lehenestea zer GJHri egiten dion ekarpena ekintza bakoitzak, GJH bakar bat asigmatuz Planaren ekintza bakoitzari.

Ekintza jakin batek zer GJHri egiten dion ekarpena identifikatzeari begira, lehenengo hurbilpena izan daiteke 6. Taula kontsultatzea, hor aurkezten baita korrelazio bat udal kudeaketaren arlo tematiko ohikoenen eta GJHen artean.

Kasu batzuetan gerta liteke zuzeneko korrelaziorik ez egotea arlo tematikoaren eta GJH baten artean, edo agian ezinezkoa da modu garbian aurkitzea zer arlo tematikorekin lotu behar den ekintza jakin bat. Horrelakoetan, taula hau **III. Eranskinarekin** osatzen da: **Tokiko eremutik GJHei ekarpena egiten dieten ekintzen tipologia**. Izan ere, taula horrek ekintzen tipologia zabal bat aurkezten du, arlo tematikoen arabera egituratuta, GJH bakoitzaren baitan.

ARLO TEMATIKOA

GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK

INGURUMEN-ALDERDIAK

LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	11. Hiri eta komunitate jasangarriak
BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	2. Goserik ez 15. Lehorreko ekosistemetako bizitza
MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	3. Osasuna eta ongizatea
LURZORUAK	15. Lehorreko ekosistemetako bizitza
URA	6. Ur garbia eta saneamendua 14. Itsaspeko bizitza
ENERGIA	7. Energia irisgarria eta ez kutsagarria
HONDAKINAK	12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
KLIMA-ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA	13. Klimaren aldeko ekintza
UDALEZ BESTEKO ERAKUNDEEN INGURUMEN-KUDEAKETA	9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura

GIZARTE-ALDERDIAK

OSASUNA	3. Osasuna eta ongizatea 11. Hiri eta komunitate jasangarriak
ONGIZATEA ETA GIZARTE-INKLUSIOA	1. Pobrezia desagerraraztea 3. Osasuna eta ongizatea 10. Desberdinkeria murriztea 16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak 17. Helburuak lortzeko aliantzak
ETXEBIZITZA	10. Desberdinkeria murriztea 11. Hiri eta komunitate jasangarriak
KULTURA	4. Kalitatezko hezkuntza 18. Diversidad lingüística y cultural
EUSKARA	4. Kalitatezko hezkuntza 18. Diversidad lingüística y cultural
HEZKUNTZA	4. Kalitatezko hezkuntza
BERDINTASUNA	5. Genero berdintasuna

ALDERDI EKONOMIKOAK

LAN-MERKATUA	8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
GARAPEN EKONOMIKOA	2. Goserik ez 8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa 14. Itsaspeko bizitza

GOBERNANTZAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN-KUDEAKETA	12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
HERRITARREN PARTE-HARTZEA	11. Hiri eta komunitate jasangarriak
KOORDINAZIOA	16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak
GARDENTASUNA	16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak

Jarraian, adibide batzuk aurkezten dira, kausistika desberdinen arabera:

1. ADIBIDEA

GJH BATI JADANIK EKARPENA EGITEN DION EKINTZA



GJH BATI JADANIK EKARPENA EGITEN DION EKINTZA

Kasu honetan, bakarrik zehaztu beharko da zein GJHri egiten dion nagusiki ekarpena.



UDALERRIAN JADANIK PLANIFIKATUTA DAGOEN EKINTZA

Bakearen kultura sustatzeko jarduerak sostengatzea eta bultzatzea (erakusketak, eztabaidak, ikastaroak, jardunaldiak, zikloak, topaketak, kanpainak antolatzea).



ZEIN GJHri EGITEN DIO EKARPENA EKINTZA HONEK?

16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak.

16



BAKEA, JUSTIZIA
ETA INSTITUZIO
SENDOAK



ZERGATIK LOTZEN ZAIO GJH HORRI?

6. Taula kontsultatzean ez da aurkitzen garbi asignatu daitekeen arlo tematikorik, eta, hortaz, III. Eranskina kontsultatzen da.

III. Eranskinean, 16. GJHri dagokion fitxan ikus dezakegu GJH horri ekarpena egiten dioten ekintzen artean bake eta bizikidetzaren kultura sustatzen duten ekintzak daudela sartuta.

2. ADIBIDEA

GJH BATI EKARPENA EGIN AHAL IZATEKO EGOKITZAPENA BEHAR DUEN EKINTZA



GJH BATI EKARPENA AHAL IZATEKO EGOKITZAPENA BEHAR DUEN EKINTZA

Kasu honetan, nagusiki zer GJHri egiten dion ekarpena zehazteaz gain, prozesua aprobetxatu liteke ekintza egokitzeko eta eguneratzeko.

LEHEN

Lehen sektorea bultzatzeko plana

Bultzada horretan honako gai hauek kontuan hartuz, beste batzuen artean: oso industrialak den hiri honetako landa-eremua arretarik gabe ez uztea; landa-eremuetako enplegu aukerak areagotzea, enpresa-proiektuak sortzearen eta mikroenpresak garatzearen bitartez.

GERO

Lehen sektorea bultzatzeko plana

Garapenerako proposamen gisa honako hauek gehitzea: Udaletik sustatzea merkataritza-zirkuitu laburrak; tokiko nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sostengatzea, edo ekoizleek Klima-alaketari egokitzeko duten gaitasuna indartzea.



ZER ALDATZEN DA?

2. GJHarekin lotutako alderdiak sartzen ditu barne (merkataritza-zirkuitu laburrak sustatzea udalerriko lehen sektorearen aldeko sostengua indartzeko, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sostengatzea, eta ekoizleek Klima-alaketari egokitzeko duten gaitasuna indartzea).



ZER GJHRI EGITEN DIO EKARPENA EKINTZA HONEK?

2. Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.



ZERGATIK LOTZEN DA GJH HORREKIN?

6. Taula kontsultatzean, ikusten dugu ekintza hau "GARAPEN EKONOMIKOA" arlo ekonomikorekin egon litekeela lotuta, eta arlo horri hiru GJH asignatu lekizkiokela, haren irismenaren arabera: 2. GJH, 8. GJH eta 14. GJH.

III. Eranskinean, 2. GJHari dagokion fitxan ikus dezakegu GJH horri ekarpena egiten dioten ekintzen artean lehen sektorearen bultzarekin lotutako ekintzak daudela sartuta.

3. ADIBIDEA

EKINTZA BERRIA

Dela Tokiko 2030 Agenda lantzerakoan egindako formulazio estrategikoan garatzen diren ekintzen multzoa erredaktatzen ari delako, dela indarrean dagoen beste plan bat egokitzerakoan kontsideratu beharreko ekintza berriak identifikatzen direlako.



EKINTZA BERRIA

Bero-boladen aurrean kalteberagoak diren kolektiboak identifikatzea eta zerbitzuen arteko neurri koordinatuak aurreikustea haren inpaktua murrizteko.

Horri begira, honako neurri hauek aurreikusi daitezke: hiri-ingurunean freskatze-eremuak (plazak eta pasealeku gerizpedunak, iturriak, eta abar) egotearen aldeko neurriak; alerta goiztiarreko protokoloak eta kolektibo kalteberei zuzendutako gomendioak ezartzea; edo pertsona kalteberagoen presentzia ohikoa den instalazioak hobetzea, hala nola eguneko zentroak, haurtzaindegia edo bestelakoak.



ZER GJHRI EGITEN DIO EKARPENA EKINTZA HONEK?



11. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.



ZERGATIK GEHITU EKINTZA BERRI HAU?

III. Eranskinean, erronka berriak planteatu ditzaketen ekintzen artean, ekintza mota hau aurkitzen dugu: “Hondamendiek udalerrian sortzen duten inpaktu ekonomiko eta soziala murrizten duten ekintzak sustatzea, mehatxuak eta kolektibo kalteberenak zein diren identifikatuz eta arriskua nabarmen murrizten duten neurriak ezarriz”. OSASUN arloari lotutako ekintza bat da.

Bai udalak azterlan propio bat garatu badu eta bai lhobek 2019an argitaratutako **EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioaren** emaitzak kontsideratzen badira, garbi dago euskal udalerriek aurrez aurre izango dituzten mehatxu nagusietako bat bero-boladak izango direla, fenomeno hauek eragina baitute giza osasunean, batez ere kolektibo kalteberagoen kasuan. Udal zerbitzu horietatik neurriak identifikatu eta aurreikusi daitezke kolektibo horiek bero-boladen aurrean duten esposizioa murrizteko.

PLANAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK

TOKIKO 2030 AGENDAREN Plana definituta dagoenean, komenigarria izango da **Garapen Jasangarriaren udal Adierazleak aukeratzea**, horien bidez jarraipen egoki bat egin ahal izateko, bai GJHena eta bai ekintzak planifikatuta dituzten esku-hartze arloena..

Adierazleak aukeratzeko, kontuan hartu daiteke **IV. Eranskina. GJHei lotutako Garapen Jasangarriaren udal Adierazleen Zerrenda**. Guztira, zerrendak **Garapen Jasangarriari buruzko 110 Adierazle** aurkezten ditu, GJHen arabera egituratuta.

Horien artean daude, gainera, AGINTE-KOADRO ESTRATEGIKOA osatu dezaketen 32 adierazleak, hau da, TOKIKO 2030 AGENDAREN formulazio estrategikoari 3. URRATSEAN lotu zaizkion adierazleak.

Zerrenda hau da Udalsarea2030en garapen jasangarriaren adierazle-sistema osatzen duena, eta e-mugi aplikazioan dago eskuragarri sarean sartuta dauden euskal udalerrientzat.

5. URRATSA



Udalerriak Garapen Jasangarriaren Helburuei egiten dien ekarpena neurtzea

**Urrats honek ahalbidetuko du udalerriak
GJHei egiten dien Ekarpina Neurtzea**

Udalerriak GJHei egiten dien ekarpena neurtzerakoan, **datu** fidagarriak beharko dira, eta baita datu horiek aztertzea ahalbidetzen duten **erreferentziak** ere.

Datuak, guztiak GJHen arabera antolatuta, modu honetan egituratu daitezke:



Planifikatzen dena
EKINTZAK



Gauzatzen dena
**PLANAREN
GAUZAPENA**



Emaitzak
ADIERAZLEAK

Udalerri batek GJHei egiten dien ekarpenaren gaineko ikuspegi osatuena hiru elementu hauetatik etorri arren, adierazletatik soilik abiatuta ere lehenengo azterketa bat egin daiteke.

Izatez, 3. Urratsean aipatu den bezala, Udalsarea2030 sareko partaideak diren euskal udalerriek erabil ditzakete **Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokia** dauden eta e-mugi aplikazioan eskuragarri dauden adierazleak, eta horien arabera euren ekarpenari buruzko lehenengo azterketa egin, prozesuaren hasierako abiapuntu gisa.

Edonola ere, prozesua bukatu eta TOKIKO 2030 AGENDA bat eskura dagoenean, interesgarria izango da aztertzea GJHei egiten zaien ekarpena, borondatezko txostenak prestatzeko eta argitaratzeko, dela emaitzak jakinarazteko, hori egokitzen jotzen bada, dela TOKIKO 2030 AGENDAK berak izan ditzakeen hobekuntza-arloak identifikatzeko.

GJHEN ARABERAKO PLANGINTZA

Kontua da GJH bakoitzerako planifikatutako ekintza kopuruari buruzko ikuspegi bat izatea. Ekintzak GJHei lotuta egongo direnez, Ekintza Plana definitzen den unetik beretik, aztertu ahal izango da zer GJHren inguruan planifikatu diren ekintzak, eta, hortaz, zein GJHri egin ahal izango zaion ekarpena, ekarpenaren ehunekoa jakiteaz batera.

Nahiz eta azterketa hau ez den modu esanguratsuan aldatu Plana indarrean dagoen bitartean, oinarritzat hartu ahal izango da Adierazleen emaitzak aztertzeko.

PLANAREN GAUZAPENA GJHEN ARABERA

Planaren gauzapena aldizka ebaluatzeak ahalbidetuko du informazio fidagarria izatea gauzatzen ari diren ekintzei buruz eta planifikatutakoaren arabera gauzatzen ari ez direnei buruz.

Gainera, ekintzak GJHei lotuta egongo direnez, aztertu ahal izango da zein GJH jorratzen diren gehiago urte bakoitzean.

GARAPEN JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK

Gisa berean, 4. URRATSEAN aukeratutako Garapen Jasangarriaren udal Adierazleen urteko kalkuluak –adierazle horien artean daude AGINTE-KOADRO ESTRATEGIKOA osatzen dutenak, 3. URRATSEAN aukeratuak- ahalbidetuko du TOKIKO 2030 AGENDAREN aurrerapenak objektiboki aztertzea.

ERREFERENTZIAK

ERREFERENTZIAZKO INFORMAZIO EGUNERATUA UDALERRIENTZAT

Udalerriko datu propioak eskura daudenean, haien azterketa eta balorazloari begira interesgarria izango da erreferentziazko datuak eskura izatea, balorazioa egin ahal izateko.

Estatu mailan, Garapen Jasangarriarako Espainiar Sareak argitaratutako **“Garapen Jasangarriaren Helburuak Espainiako 100 hiritan (“Los Objetivos de Desarrollo Sostenible en 100 ciudades españolas”)** dokumentuak azaltzen du zer-nolako egoeratan dagoen garapen jasangarria, tokiko eskalan, Espainiako probintzietako hiriburu guztietan, 80.0000 biztanletik gorako hirietan eta hamabi metropoli-eremu nagusietan. Garapen Jasangarriaren hamazazpi helburuak (GJH) neurtu ahal izateko, espainiar testuingurura egokitutako 85 adierazle identifikatu dira.

Euskadin, Udalsarea2030ek 2018an argitaratutako **Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen Ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei** izeneko txostenak Gida honetan aurkeztutako garapen jasangarriaren udal adierazle askoren batez besteko emaitzak eskaintzen ditu GJH bakoitzerako.

Gainera, GJH bakoitzean, Udalsarea2030eko udalerriek 2015era arte –urte horretan onartu ziren GJHak– egin zituzten ekintzen azterketa bat egiten da.

Etorkizunean, eta beste lurralde eta udalerrri batzuek 2030 AGENDA bere egiten duten neurrian, gerta liteke beste dokumentu batzuk ere sortzea eta horiek erreferentzia baliagarria izatea euren bilakaera aztertu eta beste udalerrri batzuen bilakaerarekin alderatu nahi duten udalerrri askorentzat; izan ere, 2030 AGENDAREN balio nagusietako bat beraren izatera unibertsala da.



I. Eranskina

GJHAK EUSKAL UDALERRIEN TESTUINGURURA HURBILTZEA

Jarraian, **Garapen Jasangarriaren 18 helburuetara*** tokiko ikuspuntutik egindako hurbilpen bat aurkezten da. Hurbilpena Tokiko Jasangarritasunerako Plan bat duten edo izan duten euskal udalerrien testuingurura dago egokituta.

Helburu bakoitzerako honako hau sartzen da:

- Jorratzen dituen **alderdiak**.
- Zenbat **helmuga garatzen dituen**, eta horietatik zeintzuk **zehazten diren euskal udalerrientzat**, bereizkuntza hau eginez: zenbat **jorratzen ari diren**, orokorrean, Udalsarea2030eko udalerrietan, eta zenbat diren, oro har, **erronka berriak**.
Azterketa hori txosten honetatik dator: *Euskal udalerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren II borondatezko txostena*.
- **Norainoko ekarpena egin daitekeen euskal udalerrietatik**.
Kasu honetan, lehenik eta behin, modu laburrean aipatzen da **nola landu den orain arte**; horren ostean, planteatzen da **zer gaitasun duten udalerriek** GJH bakoitzari etorkizunean ekarpena egiteko, Tokiko Jasangarritasunerako Planaren ezaugarrien arabera (alde horretatik, honako plan hauek bereizten dira: Agenda 21eko plan estrategikoak; alderdi sozialak eta/edo ekonomikoak txertatzen dituzten baina ingurumen-sailetik gidatzen diren plan integralak; eta ingurumen izaerako planak).

(*) Orain arte GJH bakoitzari euskal udalerrietatik nola heldu zaion sakonago ikusteko, txosten hau kontsulta daiteke: *Euskal udalerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren II borondatezko txostena*

1. GJH



POBREZIA DESAGERRARAZTE

Pobrezia mota guztiak
desagerraraztea mundu osoan.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdi batzuek gai hauekin dute zerikusia: muturreko pobrezia, pobrezia orokorra eta kalteberatasuna, gizarte-babesa, baliabide ekonomikoak izateko eta oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko eskubidea, eta pertsona pobre eta kalteberen erresilientzia klimarekin lotutako muturreko gertaeren aurrean eta beste hondamendi ekonomiko, sozial eta ingurumenekoan aurrean.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 7 helmugetatik, 6 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 3 helmuga: 1.2; 1.3 eta 1.4
- Erronka berriak planteatzen dituzten 3 helmuga: 1.1, 1.5 eta 1.b

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Orokorrean, euren bigarren belaunaldian, Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planek modu esanguratsuan areagotu dute gizarte-ongizatearekin lotutako ekintzen presentzia.

Hala eta guztiz ere, helburu honek ikuspegi integratzaileago bat planteatzen du, pobrezia eta kalteberatasun egoeran dauden pertsonen orientatutako alderdi eta ekintzen presentzia handiagoarekin.

Etorkizunerako erronkak honako hauek dira: Udalerriko pertsona eta familiek pairatu dezaketen pobrezia hiltzea –horrelakorik egonez gero–, eta klima-mehatxu nagusien aurrean kalteberagoak diren kolektiboak identifikatzea.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA plan estrategikoen kasuan.



ERTAINA gizarte-alderdiak txertatu baina ingurumen-sailetik gidatzen diren plan integralen kasuan.



TXIKIA ingurumen-planen kasuan.

2. GJH



GOSERIK EZ

Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasagarria bultzatzea.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdi batzuek gai hauekin dute zerikusia: gosea eta malnutrizioa amaitzea, elikadura osasungarri, nutritibo eta nahikoa, nekazaritzaren produktibitatea, elikagaien eskala txikiko ekoizpena, nekazaritzako praktika erresilienteak, ekosistemak mantenduz eta klima-aldaketari egokitzeko gaitasuna indartuz, elikagaiak ekoizteko sistemen jasagarritasuna, hazi-bankuak eta hazien dibertsitate genetikoa.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 8 helmugetatik, 3 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari den helmuga bat: 2.1
- Erronka berri bat planteatzen duten 2 helmuga: 2.3 eta 2.4

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Ekoizpen ekologikoa sustatu eta bultzatzearen alde lan egin da; horren erakusgarria da nekazaritzako ustiategi ekologikoen % 70 Tokiko Jasagarritasunerako Ekintza Planak dituzten udalerrietan dagoela kokatuta.

Halaber, tokiko produktuen kontsumoa sustatu da, baina oraindik ere badira heldu beharreko erronkak, helburu hau eta beraren helmugak lortzeko.

Etorkizunerako erronka da nekazaritzaren produktibitatea hobetzea eta ekoizle txikien diru-sarrerak hobetzea, baita klima aldaketara egokitzeko gaitasunean laguntzen duten, zein lurraren eta lurzorua kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktikak.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, tokiko erakundeetatik egin daitekeen esku-hartzea nabarmen hobetu daitekeelako.

3. GJH



OSASUNA ETA ONGIZATEA

Guztionez eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdi batzuek gai hauekin dute zerikusia: ama eta jaioberrien heriotza-tasa zero izatea, HIES eta hepatitisaren moduko epidemiak edo uraren bidez transmititutako gaixotasunak amaitzea, mendekotasuna sortzen duten substantzien gehiegizko erabilera prebenitzea eta tratatzea, trafikoak eragindako heriotzak eta lesioak murriztea, estaldura sanitario unibertsala lortzea, sexu- eta ugalketa-osasuna, sendagai eta txertoen eskuragarritasuna, produktu kimiko arriskutsuek eta aire, ur eta lurzorua poluzio eta kutsadurak eragindako heriotza eta gaixotasunak murriztea.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 13 helmugetatik, 6 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari den 4 helmuga: 3.5; 3.6; 3.9 eta 3.a
- Erronka berriak planteatzen dituzten 2 helmuga: 3.4 eta 3.7

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Mugikortasun segurua eta garraio jasangarriak bultzatzearen bitartez, udalerriek ekarpen bat egin diote airearen kalitatearen hobekuntzari. Oinezko esparruak sustatu dira eta hainbat bidegorri-kilometro sortu dira, horren bidez mugikortasun osasungarri eta jasangarria erraztuz. Ekimen horien eta beste batzuen ondorioz, euskal udalerrietako airearen batez besteko kalitate-indizea "oso ona", "ona" edo "hobetzeko modukoa" da egunen % 99an.

Gainera, ekimen ugari osasuna txertatzen dute, aldagai gisa, euren plangintza eta garapenean.

Etorkizuneko erronkak honako hauek dira: osasuna eta ongizatea sustatzea, sexu- eta ugalketa-osasunarekin lotutako zerbitzuetarako sarbidea barne sartuz.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, tokiko erakundeetatik lan trinkoa egiten ari delako eta kontsideratu beharreko erronka berriak planteatzen direlako.



KALITATEZKO HEZKUNTZA

Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: doako, bidezko eta kalitatezko hezkuntza, goi mailako hezkuntzara iristeko aukera-berdintasuna, garapen jasangarriko hezkuntza, desgaitasunak dituzten pertsonentzat egokitutako hezkuntza-instalazioak, ikaskuntza-ingurune seguruak, ez-biolentoak, inklusiboak eta eraginkorrak.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 10 helmugetatik, 8 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat, hots, jadanik jorratzen ari diren 6 helmuga:

- 4.1; 4.2; 4.3; 4.4; 4.5; 4.6; 4.7 eta 4.a

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Lan handia egin da jasangarritasunaren balioei buruzko hezkuntzaren alde; horren adibidea Eskolako 2030 Agenda da, hots, jasangarritasunaren balioak hezkuntza-sistemaren bidez irakasteko diseinatutako tresna bat.

Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planak dituzten udalerrietako ikasleen % 42k Eskolako 2030 Agenda duten ikastetxeetan ikasten du. Ehuneko hori EAEko ehuneko orokorra baino % 23 handiagoa da.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



ERTAINA, tokiko erakundeek GJH honek jorratzen dituen eremu batzuetan soilik esku hartu dezaketelako; izan ere, helburu honetarako oso garrantzitsuak diren beste eremu batzuk ez dira haien eskumenekoak.



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: emakume eta nesken aurkako diskriminazio eta indarkeria mota guztien amaiera, ahalduntzea, zaintzaren eta ordaindu gabeko etxeko lanaren aitortza eta erantzukizun konpartitua. Baita emakumeen osoko parte-hartze erreala, lidergorako aukera-berdintasuna bizitza politiko, ekonomiko eta publikoaren erabakitze-maila guztietan, ugalketa eskubideak, lurra, beste ondasun batzuk eta jabetza eskuratzeko eskubidea eta berdintasun politikak sustatzea.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 9 helmugetatik, 6 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat, hots, jadanik jorratzen ari diren 4 helmuga:

- Jadanik jorratzen ari diren 5 helmuga: 5.1; 5.2; 5.4; 5.5 eta 5.c
- Erronka berriak planteatzen dituen helmuga bat: 5.b

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Udalsarea2030etik irmo lan egin da genero-ikuspegia Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planetan txertatzeko.

Tokiko berdintasun eta jasangarritasunerako politikak dituzten udalerrien % 47k bi politika horiek koordinatzen ditu.

Udalsarea2030en udal korporazioetan, emakumeen batez besteko ordezkartza maila % 45 da; Europako parlamentu nazionaletan, berriz -Nazio Batuen Erakundearen arabera-, emakumeak % 27,6 soilik dira.

Etorkizunerako erronkak honako hauek dira: emakumeek lidergo-postuetan duten presentzia handitzea, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak ezabatzea eta teknologiak emakumeen ahalduntzea sustatzeko tresna gisa erabiltzea.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, plan estrategikoen kasuan.



ERTAINA, gizarte-alderdiak txertatu baina ingurumen-sailetik gidatzen diren plan integralen kasuan.



TXIKIA, ingurumen-planen kasuan.



UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

Uraren erabilera eta kudeaketa jasagarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: ura lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa izatea, prezio egokian; saneamendu- eta higiene-zerbitzuen eskuragarritasuna; uraren kalitatea, kutsadura eta tratatu gabeko hondakin-uraren ehunekoak murriztuz; baliabide hidrikoen erabilera efizientea; kudeaketa integratua; ur-ekosistemen babesa; eta tokiko komunitateen parte-hartzea uraren kudeaketaren eta saneamenduaren hobekuntzan.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 8 helmugetatik, 7 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 6 helmuga: 6.1; 6.2; 6.3; 6.4; 6.6 eta 6.b
- Erronka berri bat planteatzen duen helmuga bat: 6.5

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Tokiko erakundeek funtsezko rola jokatzen dute Euskadiko uraren hornidura eta saneamenduaren kudeaketan, eta Tokiko Jasagarritasunerako Ekintza planek horren kudeaketaren helburu batzuei heldu diete bereziki.

Herriarren % 99,6 ontzat emateko modukotzat hartzen den ura eskuratzen du kontsumorako, oraingo horniduraren bidez. Etxeko batez besteko ur-kontsumoa 116 litro dira, biztanle eta egun bakoitzeko, Tokiko Jasagarritasunerako Ekintza Plana duten udalerrietan. Datu hori Espainiako batez bestekoa baino txikiagoa da (132 litro/biztanle/egun).

Udalerriek etengabe lan egiten dute hondakin-urak jasotzeko eta arazteko sistemen hobekuntzan.

Etorkizunerako erronka da baliabide hidrikoen kudeaketa integratua, maila guztietan..

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, tokiko erakundeetatik lan trinkoa egiten ari delako eta kontsideratu beharreko erronka berriak planteatzen direlako.

7. GJH



ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA

Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoak bermatzea guztiontzat.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: pertsona guztiek energia-zerbitzu eskuragarri, fidagarri eta modernoak lortzeko bidea izatea; energia berriztagarrien ehunekoa igotzea; efizientzia energetikoa; lerkuntza; eta energia-azpiegitura eta teknologia berrietara zuzendutako inbertsioaren sustapena.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 5 helmugetatik, 3 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat, hots, jadanik jorratzen ari diren 3 helmuga:

- 7.1; 7.2 eta 7.3

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Europar konpromisoak sinatu edo bereganatu dira, sarritan Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planen bitartez; horregatik, udalerriek zenbait urte daramatzate energia-kontsumoaren murrizketari heltzen, sektore guztietan; halaber, efizientzia energetikoaren hazkundera eta energia berriztagarrien ekoizpena ere landu dituzte.

Zehazki, 17 udalerri badituzte Energia Jasangarriko Ekintza Planak (EJEP), eta 18 udalerri sinatu dute "Itunerantz Zuzenduz" ekimena, Alkateen Itunak bultzatutako neurriak ezartzeko, Planik landu behar izan gabe.

Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planak dituzten euskal udalerrietako etxebizitzetako batez besteko kontsumo elektrikoa 1.236 kWh dira biztanle eta urte bakoitzeko, hau da, EAEko kontsumo orokorra baino % 6 txikiagoa.

Energia berriztagarrien batez besteko ekoizpena 2.549 kWh dira biztanle eta urte bakoitzeko, hau da, EAEko ekoizpen orokorra baino % 6 handiagoa.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, tokiko erakundeetatik lan trinkoa egiten ari delako eta oraindik ere hobetzeko potentzial handia dagoelako.

8. GJH



LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Guztionez hazkunde jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: hazkunde ekonomikoa, dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza, lan duina, enplegu betea eta produktiboa, ekintzailtza, mikroenpresa eta ETEen sustapena, turismo jasangarriarekin eta tokiko ekoizpenarekin lotutako lana, lan-eskubideak, lan-ingurune seguruak, gazteen enplegua, aukera- eta ordainsari-berdintasuna, finantza-instituzioak sendotzea, eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereiztea.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 12 helmugetatik, 7 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 6 helmuga: 8.2; 8.3; 8.4; 8.5, 8.6 eta 8.9
- Erronka berriak planteatzen dituen helmuga bat: 8.8

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Tokiko lan-merkatuarekin eta garapen ekonomikoarekin lotutako ekintzek Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planetan duten presentzia gero eta handiagoa da. Enplegu jasangarriaren alorrean badira azpimarratu beharreko ekimen berritzaile batzuk.

Etorkizunerako erronkak honako hauek dira: alderdi horiek agenda politikan duten presentzia eta lan-eskubideak babestea baita lan-ingurune seguru sustatzea ere.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, plan estrategikoen kasuan.



ERTAINA, alderdi ekonomikoak txertatu baina ingurumen-sailetik gidatzen diren plan integralen kasuan.



TXIKIA, ingurumen-planen kasuan.



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: azpiegitura fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak; industrializazio inklusibo eta jasangarria; industria txikiek eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak eskuragarri izatea; prozesu industrial garbiak eta ingurumen aldetik arrazionalak; ikerketa zientifikoa eta ahalmen teknologikoaren hobekuntza; eta IKTetarako sarbide unibertsala.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 8 helmugetatik, 4 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat, hots, jadanik jorratzen ari diren 2 helmuga:

- Jadanik jorratzen ari diren 3 helmuga: 9.2; 9.3 eta 9.4
- Erronka berri bat planteatzen duen helmuga bat: 9.1

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planetatik zenbait ekintza gauzatu dira ingurumen-aldagaia jarduera ekonomikoetan txertatzeko. Azken urteetan, tokiko erakundeetatik zenbait ekimen bultzatu dira eremu konkretu batzuetan, hala nola hondakinen edo energiaren eremuetan, eta harrera ona izan dute jarduera ekonomikoen artean.

Etorkizuneko erronka da garapen ekonomikoa sustatzeko azpiegiturak garatzea.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



ERTAINA, zeren jardueren ingurumen-jokabidea nabarmentzen baita.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa; aukera-berdintasuna; berdintasunera zuzendutako zerga- eta soldata-politikak eta gizarte-babesaren alorrekoak; garapenerako laguntza ofiziala; munduko instituzio eta merkatuak arautzea eta gainbegiratzea.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 10 helmugetatik, 3 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat, hots, jadanik jorratzen ari diren 3 helmuga:

- 10.2; 10.3 eta 10.4

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Euskal udalerrietatik berdintasunak murriztera zuzendutako laguntza-politika eta -ildoetan lan egiten ari da. Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planek horri buruzko helburu espezifikoak heldu badiete ere, esan behar da udal politiketan oso neurri eskasean abiatu eta integratu direla.

Helburu honek esparru berri bat eskainiko du oraingo errealitate ekonomiko eta sozialetik gertuago dauden helburuak planteatzeko.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, plan estrategikoen kasuan.



ERTAINA, alderdi sozial eta ekonomikoak txertatu baina ingurumen-sailetik gidalatzen diren plan integralen kasuan.



TXIKIA, ingurumen-planen kasuan.



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: oinarrizko etxebizitza eta zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak eskuratu ahal izatea; garraio-sistema egoki eta jasangarriak, hirigintza inklusibo eta jasangarria; kultura- eta natura-ondarearen babesa; hondamendiek eragindako heriotzak; hirien ingurumen-inpaktua; airearen kalitatea; hondakinak; berdegune eta espazio publiko seguruak, inklusiboak eta irisgarriak egotea guztiontzat; ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-loturak hiriguneen, hirien inguruko eremuen eta landa-eremuen artean; jasangarritasuna eta klima-aldaketa uztartzen dituen hiri-antolamendua.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 10 helmugetatik, 8 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 7 helmuga: 11.1; 11.2; 11.3; 11.4; 11.6; 11.7 eta 11.a
- Erronka berriak planteatzen dituen helmuga bat: 11.5

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Udalsarea2030eko udalerriek ekarpen esanguratsua egin diote Helburu honi. Izan ere, jomugan jartzen du hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzea.

Tokiko eremutik lan egin da lurzoruaren artifizializazioa gelditzeko, berdeguneak areagotzeko, eta kutsadura atmosferiko zein akustikoa murrizteko, hori guztia herritarren parte-hartzea sustatuz erabakiak hartzerakoan.

Adibide azpimarragarri gisa, Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planak dituzten udalerrietako PM_{2,5} partikula fin esekien kontzentrazioaren urteko batez besteko balioa OMEk gomendatzen duenaren antzekoa da (10 µg/m³). Nazio Batuen Erakundearen arabera, Europako herritarren % 40 soilik bizi da balio hori betetzen duten eremuetan.

Etorkizunerako erronka da hondamendiek pertsonengan izan dezaketen inpaktua kontsideratzea, batez ere kalteberatasun handiagoko egoeran daudenen kasuan.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, zeren helburu hau baita udalerrietara eta Tokiko Jasangarritasunerako Udal Planen helburu espezifikoetara gehien orientatzen dena.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: kontsumo eta ekoizpen jasangarriak; baliabide naturalen kudeaketa jasangarri eta erabilera efizientea; elikagaien alferrikako galera; kudeaketa arrazionala produktuen biziklo osoan; atmosfera, ur eta lurzorura askatzen diren partikula kimikoen murrizketa; hondakinen prebentzioa, murrizketa, birziklapena eta berrerabilpena; enpresetako jardunbide jasangarriak; txostenak egitea; ingurumen-informaziorako sarbidea; erosketa publiko jasangarria; bizimodu jasangarriak; eta erregai fosilei ematen zaizkien efizientziarik gabeko diru-laguntzen arrazionalizazioa. Gainera, lanpostuak sortzen dituen eta tokiko kultura eta produktuak sustatzen dituen turismo iraunkorra sustatzen da.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 11 helmugetatik, 8 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 6 helmuga: 12.2; 12.4; 12.5; 12.7; 12.8 eta 12.b
- Erronka berriak planteatzen dituzten 2 helmuga: 12.3 eta 12.6

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Euskal udalerriek ekarpena mardula egin diote helburu honi euren Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planen bitartez.

Adibidez, Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planak dituzten udalerriek batez beste sortzen dituzten etxeko eta merkataritzako hondakinak 1,10 kg dira biztanle eta egun bakoitzeko, hau da, EAEko batez bestekoa baino % 8 gutxiago. Halaber, gaikako bilketaren tasa % 60tik gorakoa da 40 udalerritan baino gehiagotan, batez bestekoa % 39 izanik.

Udalen lizitazioen zenbatekoen % 38k ingurumen-klausulak sartzen ditu bere erosketa eta kontratazio publiko berdeko prozesuetan.

Etorkizunerako erronkak dira elikagaien alferrikako galeraren aurkako borrokari irmotasunez heltzea eta enpresak praktika jasangarriak hartzera animatzea.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, zeren eta, orokorrean, GJH honi ekarpen esanguratsua egiten ari baitzaio jadanik; gainera, ekimen berriei heldu zaie etorkizunerako erronkak planteatzen dituzten eremuetan.



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: klima-aldaketa arintzea eta beraren aurrean erresilientzia eta egokitze-ahalmena izatea, honako tresna hauen bitartez: plangintza, estrategia eta planen diseinua, hezkuntza eta sentsibilizazioa, ondorioen murrizketa eta alerta goiztiarra, Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Konbentzioaren betearazpena kontsideratuz.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 5 helmugetatik, 3 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 2 helmuga: 13.2 eta 13.3
- Erronka berriak planteatzen dituen helmuga bat: 13.1

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

19 euskal udalerriek Covenant of Mayors ituna sinatu dute, udalerri batek Mayors Adapt ituna, eta 10 udalerriek aitortza lortu zuten Compat of Mayors itunean ezarritakoa erabat betetzeagatik.

Klimaren aldeko ekintzaren ikuspuntutik, udalerriek zenbait urte daramatzate lanean alor horretan, aurrea arintze-ekimenen bitartez eta geroago egokitzapen-ekimenen bitartez. 80 euskal udalerri inguruk urtero kalkulatzeko dituzten euren BEG emisioen inbentarioak, eta 2017an klima-aldaketaren aurreko kalteberatasun eta arriskuari buruzko azterketa bat egin da Euskadiko udalerri guztientzat.

Helburu honi dagokionez, udalerri askoren erronka da Klima-aldaketari egokitzen hastea.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, udalerri askok zenbait urte daramatzatelako lanean arintze-ekimenetan, eta egokitzapenaren alorrean beharrezkoak diren baliabideak eta ezagutza sortzen ari direlako udalerriek Klima-aldaketarako egokitzapenari heldu diezaioten epe laburrera.



ITSASPEKO BIZITZA

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea garapen jasangarriari begira.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: lehorreko jarduerengatik itsasoan sortzen den kutsadura; ozeanoen azidifikazioa; itsas ekosistemen babesa; ozeanoetako osasuna eta produktibitatea berrezartzea; kostalde eta itsas eremuen kontserbazioa; gehiegizko ustiapena eta legez kanpoko arrantza ezabatzea; artisau-arrantza sostengatzea; eta ezagutza zientifikoak areagotzea.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 10 helmugetatik, 2 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat, hots, erronka berriak sortzen dituzten bi helmuga:

- 14.1 eta 14.5

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Kostaldeko uren egoera ekologikoa ona da, Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako irizpideen arabera. Zuzentarau horrek kontsideratzen du azaleko urei lotutako ur-ekosistemen egitura eta funtzionamenduaren kalitatea, erreferentziazko baldintzei dagokienez.

Euskal kostaldeko udalerri askok ISO 14001 Arauaren eta/edo EMAS Araudiaren arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketarako sistemak dituzte euren hondartzetan.

Etorkizunerako erronkak dira itsas kutsadura prebenitzen eta murrizten laguntzea eta kostaldea kontserbatzea.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



TXIKIA, udalerriek ez dutelako eskumenik Helburu honen helmuga gehienen inguruan.

15.
GJH



LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeara eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: lehorreko ekosistemen eta ur gezako barne-ekosistemen eta haien zerbitzuen kontserbazioa, lehengoratzeara eta erabilera jasangarria; basamortutzea; degradatutako lur eta lurzoruen lehengoratzeara; biodibertsitatearen galera; espezie exotiko inbaditzaileak; ekosistemen balioak plangintzan integratzea; eta ezkutuko ehiza.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 12 helmugetatik, 8 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 4 helmuga: 15.1; 15.3; 15.5 eta 15.8
- Erronka berriak planteatzen dituzten 4 helmuga: 15.2; 15.4; 15.9 eta 15.a

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Babestutako azaleraren batez besteko balioa osoko azaleraren % 18,5 da.

Biodibertsitatea eta lurzoruen babesa Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Plan ia guztietan lantzen diren eremuak dira; hala, biodibertsitatearen eta baso kudeaketaren babesa sustatzen da, eta baita lurzoruen kalitateari lotutako protokoloen betearazpena ere.

Etorkizunerako erronkak, berriz, honako hauek dira: baso mota guztien kudeaketa jasangarria indartzea; mendi-ekosistemen kontserbazioa segurtatzea, haien biodibertsitate biologikoa barne sartuta; eta ekosistemen balioak eta biodibertsitatea plangintzan modu irmoagoan integratzea eta horretarako finantza-baliabideak handitzea.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, zeren eta, orokorrean, GJH hau jadanik jorratzen ari baita neurri esanguratsuan.



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: indarkeria, tratu txarrak eta esplotazioa murriztea; zuzenbide-estatu; justiziarako berdintasunezko sarbidea; ustelkeria eta eroskeria murriztea; instituzio eraginkor eta gardenak; kontuak ematea; parte-hartzea eta informaziorako sarbidea; eta oinarritzko askatasunen babesa. Halaber, erabaki hartze inklusiboak, parte-hartzaileak eta adierazgarriak barneratzen ditu, eta garapen jasangarriaren aldeko politikak sustatzea.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 12 helmugetatik, 6 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 4 helmuga: 16.6; 16.7; 16.10 eta 16.b
- Erronka berriak planteatzen dituzten 2 helmuga: 16.1 eta 16.5

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Bizikidetza izan da Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planen jorratu duten eremuetako bat, baina haren presentzia apala izan da eta ez da azpimarratzeko moduko ekintzarik garatu. Azken urteotan lan handia egin da erakundeen gardentasuna, kontuak ematea eta sailen arteko koordinazioa hobetzen.

Etorkizunerako erronka gisa, 2030 Agendak gizarte eta udalerri baketsu eta inklusiboak sustatzen dituen eszenario bat planteatzen du helburu honetan, baita ustelkeria murriztea ere.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



ERTAINA, jorratzen dituen alderdi asko ez direlako udal eskumenekoak.



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuek gai hauekin dute zerikusia: baliabideak mobilizatzea eta garapenerako laguntzaren inguruko konpromisoak betetzea; garapen jasangarrirako politiken koherentzia; garapen bidean dauden herrialdeei emandako sostengua, kalitatezko datu egokien eskuragarritasuna handitzeko ahalmena sortzeko.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 19 helmugetatik, 3 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat, hots, jadanik jorratzen ari diren 3 helmuga:

- 17.2; 17.14 eta 17.18

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Helburu hau erreferentzia bihurtu daiteke garapen bidean dauden herrialdeentzako sostengua hobetzeko eta jasangarritasun-politiken koherentzia hobetzeko.

Euskal udalerri askok finkatu egin dute garapen jasangarrirako politiken koherentzia, eta, gainera, koordinazioa indartu dute Udalsarea2030en bitartez, sare mailako koordinazioa indartzeaz batera. Kontuak emateko prestatuta dauden Tokiko Jasangarritasunerako Politikak dituzte, eta horren erakusgarri da Euskadiko 2016ko V. Jasangarritasun Txostena prestatzeari begira 2015ean kalkulatu ziren adierazleen bolumena (4.601 adierazle).

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



ERTAINA, jorratzen dituen alderdi asko ez direlako udal eskumenekoak.



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

Ekimen honen bidez lantzen diren alderdietako batzuk honako hauek dira: hizkuntza eta kultura gutxituak dituzten komunitateak ahalduntzea eta ikusaraztea, legeria egokia eta estrategia politiko eraginkorrak sustatzea, hizkuntza guztiek hezkuntza-sistemetan presentzia dutela ziurtatzea, hezkuntza-eredu bi-eleaniztunak bultzatuz, eten digitala murriztea, hizkuntza guztietan teknologia berrietarako sarbidea bermatuz, hizkuntza horiek komunikabide guztietan duten presentzia ziurtatzea edo berezko hizkuntzetan zerbitzu publikoak ematea bultzatzea.

GARATZEN DITUEN HELMUGAK

GJH honek garatzen dituen 7 helmugetatik, 4 helmuga zehaztu dira euskal udalerrientzat:

- Jadanik jorratzen ari diren 2 helmuga: 18.4 eta 18.6
- Erronka berriak planteatzen dituzten 2 helmuga: 18.1 eta 18.5

NORAINOKO EKARPENA EGIN DAITEKE EUSKAL UDALERRIETATIK?

NOLA HELDU ZAIO ORAIN ARTE?

Euskal erakundeak aspalditik ari dira euskara sustatzeko eta normalizatzeko lanean, bai erakundeen barruan, bai herritarren artean ere, eta horretarako euskararen normalizazio- eta erabilera-planak dituzte.

Gainera, euskal kulturari eta udalerrian eta lurraldean dauden beste kultura gutxitu batzuei ikusgarritasuna emateko jarduerak eta ekitaldiak ere sustatzen dira.

Etorkizuneko erronkak honako hauek dira: hizkuntza gutxituak dituzten komunitateei ikusgarritasuna ematea eta identitate desberdinak indartzea, eta hizkuntza guztietan eten digitala murriztea, bereziki, teknologia berrietarako euskarazko sarbidea bermatzea.

NORAINOKO AHALMENA DUTE UDALERRIEK GJH HONI EKARPENA EGITEKO?



HANDIA, euskararen ezagutzan eta normalizazioan buru-belarri lan egiten ari delako, eta kultura-agenda zabalak dituztelako.

II. Eranskina

UDALERRIENTZAT ERREFERENTZIA DIREN 95 HELMUGAK

2030 Agendak garatzen dituen 169 helmugetatik, tokiko eremuan zentzua dutenak adierazten dira jarraian. Horietako batzuk nabarmenduta daude (lauki batean sartuta), zeren kontsideratzen baita erronka berriak planteatu ditzaketela udalerrientzat.

1. GJH



POBREZIA DESAGERRARAZTE

Pobrezia mota guztiak
desagerraraztea mundu osoan.

1.1

Hemendik 2030era, pertsona ororentzat eta mundu osoan muturreko pobreziaekin amaitzea (gaur egun ulertzen da muturreko pobrezian daudenak egunean Ameriketako Estatu Batuetako 1,25 dolar baino gutxiagorekin bizi direnak direla).

1.2

Hemendik 2030era, definizio nazionalen arabera pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa erdira behintzat jaitea.

1.3

Nazio mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, hemendik 2030era, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea.

1.4

Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiek, bereziki pobreenek eta ahulenek, baliabide ekonomikoak izateko eta oinarritzko zerbitzuak, lurraren eta beste ondasun batzuen jabetza eta kontrola izateko, herentziarako, natura-baliabideetarako, teknologia berri egokietarako eta finantza-zerbitzuetarako, mikrofinantziazioa barne, eskubidea dutela bermatzea.

1.5

Hemendik 2030era arte, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea eta klimarekin eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoaren eraginpean egotea eta ondoriozko ahultasuna murriztea.

1.b

Arau-esparru sendoak sortzea nazioa mailan, lurraldeetan eta nazioartean, genero-gaiak kontuan hartzen dituzten pobreen aldeko garapen-estrategietan oinarrituta, pobrezia desagerrarazteko neurrietan inbertsio bizkorra egiteko.

2. GJH



GOSERIK EZ

Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

2.1

2030erako, goseari amaiera ematea eta pertsona guztiek, bereziki pobreek eta egoera ahulean dauden pertsonak, bularreko haurrak barne, urte osoan elikadura osasuntsua, elikagarria eta nahikoa izan dezaten lortzea.

2.3

Hemendik 2030era, nekazaritza-ustiapena eta eskala txikian elikagaien ekoizle direnen diru-sarrerak bikoiztea (bereziki, emakume, herri indigena, familiako nekazari, abeltzain eta arrantzaleenak), besteak beste, lurretara sarbide segurua eta bidezkoa edukiz, bai eta beste ekoizpen-baliabide eta -input batzuetara eta ezagutza, finantza-zerbitzu, merkatu eta balioa eransteko aukeretara ere, eta nekazaritzakoak ez diren enpleguak lortzea.

2.4

Hemendik 2030era, elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta produktibitatea eta ekoizpena areagotzen duten, ekosistemei eusten laguntzen duten, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorte, uholde eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzen duten eta luraren eta lurzorua kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktika indartsuak aplikatzea.

3. GJH



OSASUNA ETA ONGIZATEA

Guztionez eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

3.4

Hemendik 2030era, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.

3.5

Substantzia adiktiboen abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.

3.6

Hemendik 2020ra, erdira murriztea munduan trafiko-istripuen ondorioz eragindako heriotza- eta lesio-kopurua.

3.7

Hemendik 2030era, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzeko estrategia eta programa nazionala.

3.9

Hemendik 2030era, nabarmen jaitea produktu kimiko arriskutsuen eta airearen, uraren eta luraren poluzioaren eta kutsaduraren ondorioz eragindako heriotza eta gaixotasunak.

3.a

Tabakoa kontrolatzeko Osasunaren Mundu Erakundearen Esparru Hitzarmenaren aplikazioa indartzea herrialde guztietan, dagokionaren arabera

4. GJH



KALITATEZKO HEZKUNTZA

Guztientzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

4.1

Hemendik 2030era, ziurtatu haur guztiek amaituko dutela lehen eta bigarren hezkuntza, doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izango dena, eta ikaskuntzaren emaitza egokiak eta eraginkorrak sortuko dituela.

4.2

Hemendik 2030era, haur guztiek lehen haurtzaroan eta aurre eskolako hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.

4.3

Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntza barne.

4.4

Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea enplegua eta lan duina eskuratzeko eta ekintzailatzarako beharrezko gaitasunak, batez ere teknikoak eta lanbidekoak, dituzten gazte eta helduen kopurua.

4.5

Hemendik 2030era, genero-desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide-prestakuntzan pertsona ahulenei, desgaitasunen bat duten pertsonen, herri indigenei eta ahultasun-egoeran dauden hurrei barne.

4.6

Hemendik 2030era, gazte guztiak eta helduen proportzio handi bat, bai gizonak bai emakumeak, alfabetatuta daudela eta aritmetikako oinarriko ezagutzak dituztela ziurtatzea.

4.7

Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarriko eta bizi-estilo jasangarriarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasunaren baloraziorako eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez.

4.a

Haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen premiak eta genero-desberdintasunak kontuan hartuko dituzten hezkuntza-instalazioak eraikitzea eta egokitzea, eta ikasteko ingurune seguruak, indarkeriarik gabekoak, inklusiboak eta guztientzako eraginkorrak eskainiko dituztenak.

5. GJH



GENERO BERDINTASUNA

Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.

5.1

Mundu guztian emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzea.

5.2

Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne.

5.4

Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.

5.5

Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan.

5.b

Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.

5.c

Politika egokiak eta genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea maila guztietan sustatzeko lege aplikagarriak onartzea eta indartzea.

6. GJH



UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

Uraren erabilera eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.

6.1

Hemendik 2030era, ur edangarria lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa izan dadila lortzea, denontzako prezio egokian.

6.2

Hemendik 2030era, saneamendu- eta higiene-zerbitzu egoki eta bidezkoetarako sarbidea lortzea denontzat, eta amaiera ematea aire zabalean sabelusteari. Arreta berezia eskainiko zaie emakumeen eta neskatoen beharrei, eta ahultasun-egoeran dauden pertsonenei.

6.3

Hemendik 2030era, uraren kalitatea hobetzea, alegia: kutsadura murriztea; hondakin, produktu kimiko eta material arriskutsurik ez isurtzea; tratatu gabeko hondakin-uren portzentajea erdira murriztea; eta arriskurik gabeko birziklapena eta berrerabilera nabarmen areagotzea mundu osoan.

6.4

Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra sektore guztietan, eta bermatzea ur gezaren erauzketaren eta horniketaren jasangarritasuna, ur-gabeziari aurre egiteko eta urik ez duten pertsonen kopurua nabarmen murrizteko.

6.5

Hemendik 2030era, baliabide hidrikoen kudeaketa integratua ezartzea maila guztietan, baita mugaz gaindiko lankidetzaren bidez ere, hala badagokio.

6.6

Hemendik 2020ra, babestea eta berrezartzea urarekin lotura duten ekosistemak, basoak, mendiak, hezeguneak, ibaiak, akuiferoak eta lakuak.

6.b

Toki-komunitateek ur- eta saneamendu-kudeaketaren hobekuntzan duten parte-hartzea babestea eta sendotzea.

7. GJH



ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA

Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.

7.1

Hemendik 2030era, energia-zerbitzu arrazoizko, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea.

7.2

Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea energia berriztagarrien proportzioa, energia-iturri guztien artean.

7.3

Hemendik 2030era, energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren munduko tasa bikoiztea.

8. GJH



LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Guztientzako hazkunde jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.

8.2

Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren artean, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz.

8.3

Garapenera bideratutako politikak sustatzea, honako alderdi hauei babesa emango dietenak: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailatza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, baita finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.

8.4

Hemendik 2030era, pixkanaka hobetzea munduko baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra, eta hazkunde ekonomiko ingurumenaren degradaziotik bereizten saiatzea, Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarriei buruzko Programen Hamar Urterako Esparruarekin bat etorriz, garatutako herrialdeetatik hasita.

8.5

Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea.

8.6

Hemendik 2020ra, nabarmen murriztea enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.

8.8

Lan-eskubideak babestea eta arriskurik gabeko lan-ingurune segurua sustatzea langile guztientzat, langile migratzaileentzat barne, bereziki emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituzten pertsonentzat.

8.9

Hemendik 2030era, turismo jasangarria sustatzera bideratutako politikak egitea eta martxan jartzea, lanpostuak sor ditzan eta tokiko kultura eta produktuak susta ditzan.



9.1

Azpiegitura fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea, eskualdeetako eta mugaz haraindiko azpiegiturak barne, garapen ekonomikoa eta giza ongizatea bultzatzeko, eta bereziki azpimarratzea guztiontzako eskuragarritasun eskuragarria eta ekitatiboa.

9.2

Industrializazio inklusibo eta jasangarria sustatzea eta, hemendik 2030era bitartean, industriak enpleguari eta barne-produktu gordinari egiten dion ekarpena nabarmen handitzea, baldintza nazionalen arabera, eta ekarpen hori bikoiztea gutxien aurreratutako herrialdeetan.

9.3

Industria txikiek eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak, arrazoizko kredituak barne, lortzeko dituzten aukerak areagotzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta industria edo enpresa horiek balio-kateetan eta merkatuetan sar daitezela ahalbidetzea.

9.4

Hemendik 2030era, azpiegitura modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen arabera neurriak har ditzatela lortu behar da.

10. GJH



DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdinkeriak murriztea.

10.2

Hemendik 2030era, pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere.

10.3

Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko

10.4

Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.

11. GJH



HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.

11.1

Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.

11.2

Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea eta bide-segurtasuna hobetzea, batez ere garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz (emakumeak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak).

11.3

Hemendik 2030era, hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kokaguneen kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere, herrialde guztietan.

11.4

Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak bikoiztea.

11.5

Hemendik 2030era, nabarmen murriztea hondamendien ondorioz (urarekin zerikusia dutenak barne) sortutako heriotzen eta horien eraginak jasaten dituzten pertsonen kopurua, eta nabarmen murriztea hondamendiek sortutako zuzeneko galera ekonomikoak, munduko barne-produktuarekin alderatuta, arreta berezia emanez pobreei eta ahultasun-egoeran dauden pertsonari.

11.6

Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa, eta arreta berezia eskaintzea airearen kalitateari eta udal-hondakinen eta beste hondakin batzuen kudeaketari.

11.7

Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

11.a

Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-lotura positiboak babestea, garapen nazionalaren eta eskualdekoaren plangintza sendotuz.

12. GJH



EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.

12.2 Hemendik 2030era, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.

12.3 Hemendik 2030era, munduan, txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren per capita elikagaien kopurua erdira murriztea, eta elikagai-galerak murriztea ekoizpen- eta horniketa-kateetan, uztaren ondorengo galerak barne.

12.4 Hemendik 2020ra, produktu kimikoak eta hondakin guztiak ekologikoki arrazoizkoa den moduren batean kudeatzea beren bizi-zikloan, hitzartutako nazioarteko esparruekin bat etorritik; eta nabarmen murriztea atmosferara, urera eta lurrera egiten dituzten isuriak, horiek giza osasunean eta ingurumenean dituzten eragin kaltegarriak arintze aldera.

12.5 Hemendik 2030era, nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebentzio-, murrizketa-, birziklatze- eta berrerabilpen-jardueren bitartez.

12.6 Enpresak animatzea, bereziki enpresa handiak eta transnazionalak, jardunbide jasangarriak erabiltzera eta jasangarritasunari buruzko informazioa sartzera beren txostenen aurkezpen-zikloan.

12.7 Erosketa publikoko jardunbide jasangarriak sustatzea, politika eta lehenetasun nazionalekin bat etorritik.

12.8 Hemendik 2030era, mundu osoko pertsonek beharrezko informazioa eta ezagutzak badituztela bermatzea, garapen jasangarriko eta naturarekin bat datorren bizi-estiloa edukitzeko.

12.b Garapen jasangarrian ondorioak zaintzeko tresnak prestatzea eta aplikatzea, lanpostuak sortuko dituen eta tokiko kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo iraunkorra lortzeko.

13. GJH



KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.

13.1

Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde guztietan.

13.2

Klima-aldaketari lotutako neurriak sartzea politika, estrategia eta plan nazionaletan.

13.3

Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza ahalmena eta erakundeena hobetzea, klima-aldaketa murrizteko, horretara egokitzeko, bere eraginak arintzeko eta garaiz ohartarazteko.

14. GJH



ITSASPEKO BIZITZA

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea garapen jasangarriari begira.

14.1

Hemendik 2025era, mota guztietako itsas kutsadura aurreikustea eta nabarmen murriztea, bereziki, lurrean eginiko jardueren bidez sortutakoa (itsas detrituak eta elikagaien bidezko kutsadura barne).

14.5

Hemendik 2020ra, kostaldeen eta marinel-eremuen % 10, gutxienez, kontserbatzea, lege nazionalekin eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritik eta oinarri gisa erabilgarri dagoen informazio zientifiko hoberena erabiliz.

15. GJH



LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeta eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.

15.1

Hemendik 2020ra, lurreko ekosistemen eta ur gezaren barne-ekosistemen eta horien zerbitzuen zaintza, berrezarpena eta erabilera jasangarria bermatzea, bereziki hauena: basoak, hezeguneak, mendiak eta gune lehorrak; hori guztia, bat etorri nazioarteko hitzarmenen bidez ezarritako betebeharrekin.

15.2

Hemendik 2020ra, martxan jartzea baso-mota guztien kudeaketa jasangarria, deforestazioa geldiaraztea, degradatutako basoak berreskuratzea eta basotzea nahiz basoberritzea nabarmen areagotzea mundu-mailan.

15.3

Hemendik 2030era, desertifikazioari aurka egitea, lur eta lurzoru degradatuak birgaitzea (desertifikazioek, lehorteek eta uholdeek kaltetutako lurak barne) eta lurzoruaren degradazioan eragin neutroa izango duen mundu bat lortzen saiatzea.

15.4

Hemendik 2030era, ekosistema menditsuen kontserbazioa bermatzea, horien dibertsitate biologikoa barne, garapen jasangarrirako funtsezko onurak emateko duten ahalmena hobetze aldera.

15.5

Neurri premiazko eta esanguratsuak hartzea, habitat naturalen degradazioa murrizteko, biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta, hemendik 2020ra, mehatxatutako espezieak babesteko eta desagertu daitezela saihesteko.

15.8

Hemendik 2020ra, espezie exotiko inbaditzaileak sar daitezela prebenitzeko eta horiek lurreko nahiz uretako ekosistemetan dituzten eraginak nabarmen murrizteko neurriak hartzea, eta lehentasunezko espezieak kontrolatzea edo desagerraraztea

15.9

Hemendik 2020ra, ekosistemen eta biodibertsitatearen balioak sartzea plangintzan, garapen-prozesuetan, pobrezia murrizteko estrategietan eta kontabilitate nazionaletan eta tokikoetan.

15.a

Iturri guztietatik datozen finantza-baliabideak mobilizatzea eta nabarmen areagotzea, biodibertsitatea eta ekosistemak zaintzeko eta jasangarritasunez erabiltzeko.

16. GJH



BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorra eta inklusiboak sortzea maila guztietan.

16.1

Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.

16.5

Ustelkeria eta eroskeria modu guztietan nabarmen murriztea.

16.6

Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.

16.7

Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta ordezkatzaileak maila guztietan hartuko direla bermatzea

16.10

Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak babestea, lege nazionalen eta nazioarteko akordioen arabera.

16.b

Garapen iraunkorraren aldeko lege eta politika ez-diskriminatzaileak sustatzea eta aplikatzea.



17.2

Garatutako herrialdeek garapenerako laguntza ofizialarekin lotutako beren konpromisoak erabat betetzen dituztela zaintzea, hainbat herrialdek hartutako honako konpromiso hau barne: diru-sarrera nazional gordinaren % 0,7 garapen-bidean dauden herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea, eta diru-sarrera nazional gordinaren % 0,15 eta % 0,20 artean aurrerapen txikieneko herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea. Garapenerako laguntza ofizialaren emaileak bultzatu dira honako hau betetzeko helburua ezar dezaten: diru-sarrera nazional gordinaren % 0,20, gutxienez, aurrerapen txikieneko herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea.

17.14

Garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzea.

17.18

Hemendik 2020ra, garapen-bidean dauden herrialdeei (aurrerapen txikieneko herrialdeak eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak barne) ahalmena sortzeko emandako babes hobetzea, datu egokien, fidagarrien eta kalitatezkoen erabilgarritasuna nabarmen areagotzeko; datu horiek honela banakatuta egon beharko dute: diru-sarrerak, sexua, adina, arraza, jatorri etnikoa, migrazio-estatusa, desgaitasuna, kokapen geografikoa eta testuinguru nazionaletan egokitzeak jotzen diren beste ezaugarri batzuk.

18. GJH



HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA

Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialeko ezinbesteko faktore gisa.

18.1

Hizkuntza gutxiagotuak dituzten komunitateak ahaldundu eta ezagutarazi identitate desberdinak indartzeko.

18.4

Gutxienez hizkuntza biren erabilera praktikoa bermatuko duen hezkuntza eredu elebi/eleanitzak bultzatu, beti ere hizkuntza gutxiagotua modu eragingarrian irakasten dela ziurtatuz.

18.5

Eten digitala murriztu eta teknologia berriak hizkuntza guztietan, batez ere gutxiagotuetan, eskuragarri jarri.

18.6

Hizkuntza gutxiagotuen presentzia bermatu hedabide mota guztietan: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak edota teknologia berrien alorrean garatutakoak.

III. Eranskina

TOKIKO EREMUTIK GJHEI EKARPENA EGITEN DIETEN EKINTZEN TIPOLOGIA

Jarraian, fitxa multzo bat aurkezten da GJH bakoitzeko; fitxa horietan azaltzen da zer-nolako ekintzak lotzen diren GJH bakoitzarekin, udal kudeaketaren arlo tematikoen arabera. Ekintzen artean, tokiko mailan erronka berriak planteatu litzaketenak aipatzen dira (ikus II. Eranskina).

Gainera, fitxa bakoitzean helburuari lotutako adierazleak gehitzen dira, IV. Eranskinarekin bat etorritz, GJH bakoitzari buruzko ikuspegi oso bat izateko, aginte-koadro estrategikoa osatu dezaketenak letra lodiz nabarmenduz.

1. GJH



POBREZIA DESAGERRARAZTE

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Muturreko pobrezia.
- Pobreza orokorra.
- Kalteberatasuna, gizarte-babesa, baliabide ekonomikoak izateko eskubidea.
- Oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko eskubidea.
- Pertsona pobre eta kalteberen erresilientzia klimarekin lotutako muturreko gertaeren aurrean eta beste hondamendi ekonomiko, sozial eta ingurumenekoan aurrean.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> GIZARTE-ONGIZATE ETA –INKLUSIOA

Hirugarren adineko pertsonen ongizatea bermatzea

- Zahartze aktiboa sustatzea.
- Hirugarren adineko pertsonen zuzendutako zerbitzuak eskaintzea eta eskuratzeko laguntza (etxe- arreta, mendetasun-laguntzak, eta abar).
- Tutoretzako etxebizitzak eta gizarte-alokairuko ekimenen eskaintza sustatzea.

Pertsona kalteberen edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden ongizatea bermatzea

- Sostengu eta laguntza ematea egoera ahulean dauden sektoreei.
- Bermatzea herritar guztiek eskura ditzaketela oinarrizko ekipamendu eta osasun-zerbitzuak.

Gizarte-laguntzako baliabideez informatzea eta baliabide horiek segurtatzea

- Herritarrak orientatzea eta informatzea eskura dauden gizarte-laguntzako zerbitzuez.
- Oinarrizko beharrak betetzeko bidea bermatzea herritar guztiei.

> Erronka berriak

- Udalerriko pertsona eta familiek pairatu dezaketen pobrezia identifikatzea eta haren aurka egitea.
- Udalerriko klima-mehatxu nagusien aurrean kalteberagoak diren kolektiboak identifikatzea.

OINARRIZKO ADIERAZLEAK

ITURRIA

11_04 Pobrezia eta gizarteko bazterkeria

UDALERRIAZ GAINDIKOA

11_05 Pobrezia-maila / Gizarte Larrialdietarako laguntzak jasotzen dituztenak

UDALERRIAZ GAINDIKOA

ADIERAZLE OSAGARRIAK

ITURRIA

11_11 Etxebizitzarik gabeko pertsonen eskaintzen zaien laguntza

TOKIKOA

2. GJH



GOSERIK EZ

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Gosea eta malnutrizioa amaitzea.
- Elikadura osasungarri, nutritibo eta nahikoa.
- Nekazaritzaren produktibitatea.
- Elikagaien eskala txikiko ekoizpena.
- Nekazaritzako praktika erresilienteak, ekosistemak mantenduz eta klima-aldaketari egokitzeko gaitasuna indartuz.
- Elikagaiak ekoizteko sistemen jasangarritasuna.
- Hazi-bankuak eta hazien dibertsitate genetikoa.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA

- Nekazaritzako ingurumen-praktika sustatzea kudeaketa-plan publiko eta pribatuen bidez, nekazaritza eta abeltzaintzaren produktibitatea hobetuz.
- Lan-jarduera ekonomikoen eta espazioen erabileraren eta gizarte- eta paisaia-balioen arteko loturak bultzatzea.
- Hazien dibertsitate genetikoa mantentzea.
- Hazien eta bertoko eta tokiko landareen bankuen kudeaketa eta dibertsifikazioa sustatzea.
- Baserriko eta etxekotutako animalien eta haien basa-espezieen dibertsitate genetikoa mantentzea.
- Lursail publikoak autokontsumorako ortuetara zuzentzea.

> GARAPEN EKONOMIKOA

- Lehen sektorearen lehiakortasuna sustatzea, eta baita nekazaritza eta basogintzako lurren erabilera jasangarria ere, landa-eremuan.
- Landa-ekonomiaren dibertsifikazioa bultzatzea.
- Ekoizleek Klima-aldaketari egokitzeko duten gaitasuna indartzea.
- Merkaturatze-zirkuitu laburrak bultzatzea, hala nola kontsumo-taldeak, tokiko merkatuak...
- Tokiko nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sostengatzea.
- Elikadura-segurtasuna bermatzea.
- Belaunaldi-erlebia bultzatzea eta nekazari gazteei landa-eremuan finkatzen laguntzea.

> Erronka berriak

- Elikagaien eskala txikiko ekoizleen nekazaritza-produktibitatea eta diru-sarrerak handitzea.
- Klima aldaketara egokitzeko gaitasunean laguntzen duten, zein lurraren eta lurzoruen kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktikak sustatzea.

ONRRIZKO ADIERAZLEAK

ITURRIA

02_03 Nekazaritzako ustategi ekologikoak

UDALERRIAZ GAINDIKOA

02_04 Nekazaritzako azalera ekologikoa

UDALERRIAZ GAINDIKOA

02_05 Abeltzaintza ekologikoko ustategiak

UDALERRIAZ GAINDIKOA

02_06 Abeltzaintzako azalera ekologikoa

UDALERRIAZ GAINDIKOA

17_06 Lehen sektorearen Balio Erantsi Gordina

UDALERRIAZ GAINDIKOA



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Ama eta jaioberrien heriotza-tasa zero izatea munduan.
- HIES eta hepatitisaren moduko epidemiak edo uraren bidez transmititutako gaixotasunak amaitzea.
- Mendekotasuna sortzen duten substantzien gehiegizko erabilera prebenitzea eta tratatzea.
- Trafikoak eragindako heriotzak eta lesioak murriztea.
- Estaldura sanitario unibertsala lortzea, sexu- eta ugalketa-osasuna, eta sendagai eta txertoen eskuragarritasuna.
- Produktu kimiko arriskutsuek eta aire, ur eta lurzorua poluzio eta kutsadurak eragindako heriotza eta gaixotasunak murriztea.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> OSASUNA

Osasuna sustatzea

- Bizi-ohitura eta -estilo osasungarriak irakastea eta sustatzea herritarren artean.
- Substantzia adiktiboen abusuaren prebentzioa eta tratamendua sustatzea.
- Oinarritzko ekipamendu eta zerbitzu sanitarioak herritar guztientzat eskuragarri eta irisgarriak direla bermatzea.
- Hiri-ingurune hurbilenaren osasungarritasuna eta udalerriko elikadura-kalitatea bermatzea.
- Kirol ekipamenduak herritar guztientzat eskuragarri eta irisgarriak direla bermatzea.
- Udalerriko kirol jarduerak dinamizatzea.

Kalitate akustiko onaren alde egitea

- Indarrean dagoen legediak kalitate akustikoaren kontrol eta hobekuntzarako ezartzen dituen ebaluazio- eta kudeaketa-tresnak ezartzea.
- Aurrekoez gain, borondatezko ebaluazio- eta kudeaketa-tresnak ezartzea.
- Udalerriko eremu bakoitzeko ingurumen-zarataren foku nagusiak eta mailak ezagutza (eta haien bilakaera ere bai).
- Udalerrian dauden zarata-fokuak kontuan hartzea, aisialdiak eta merkataritza-jarduerak eta bestelakoek sortutakoa barne sartuta.
- Kalitate akustikoaren helburuetatik gorako zarata maila jasaten dituzten udalerriko-eremuak eta biztanle taldeak.
- Hobekuntza-ekintzak txertatzen dituzten planak diseinatzea eta inplementatzea, kalitate akustikoaren helburuak lortzeko.
- Zarata sortzen duten jardueren emisioa arautzea eta ezarritako mugak betearazteko ikuskapena egitea.
- Herritarrak informatzea zaratak eragindako kutsaduraz eta horrekin lotutako kontzientziakzio-kanpainak egitea.
- Sailen arteko koordinazioa sustatzea, arazo honi aurre egiteko.
- Gai honetan eskumena duten beste administrazio publiko batzuek bultzatzen dituzten ekintza zuzentzaileak ezagutzea eta bultzatzea.

Kutsadura elektromagnetikoaren iturriak kontrolatzea eta beraren jarraipena egitea

- Udalerriko kutsadura elektromagnetikoaren iturriak aztertzea, emisioak neurtzea eta herritarrak informatzea.
- Kutsadura elektromagnetiko txikiko guneak egotearen alde egitea udal kudeaketaren eremutan.

> Erronka berriak

- Gaixotasunen prebentzioa sustatzea.
- Udalerrian dauden sexu- eta ugalketa-osasun zerbitzuen irisgarritasuna segurtatzea, familia-plangintza, informazio eta hezkuntzaren eremukoak barne sartuta.

> MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

Garraio kolektiboa bultzatzea

- Garraio kolektiboko zerbitzuen eskaintza hobetzea, eta baita ibilgailu pribatuarekin eta bidaia-denborarekin alderatuta duten lehiakortasuna ere hobetzea.
- Garraio publikoaren intermodalitatea hobetzea.
- Garraio publikoari buruzko informazioa areagotzea geroak, interneten eta teknologia berrietan, eta haren sustapenerako kanpainak garatzea.
- Garraio kolektiboaren erabilera errazten duten tarifa-politikak ezartzea.
- Garraio publikoaren zerbitzua bizigune isolatuen beharretara egokitzea, batez ere landa-eremuan.

Hiri-eremua garatzea eta egokitzea oinezko eta bizikletazko joan-etorriak errazteko

- Espazio publikoa urbanizatzea oinezko eta txirrindularientzat seguru, eroso eta erakargarria izan dadin.
- Bizikleta eta oinezkoen alorreko konektibitatea hobetzea, kaleko erabilera desberdinak berronkatuz.
- Eremu baketuak sortzea, ingurune lasaiak sortuz.
- Mugikortasun bertikala hobetzea irisgarritasun gutxiago duten eremuetan.
- Kale eta eraikin publikoetako oztopo arkitektonikoak ezabatzea.
- Oinezkotzat lehentasunezkoak diren kaleak eta trafiko baketsuko eremuak areagotzea

Tokiko eta eskualdeko bide-irisgarritasuna bermatzea eta hobetzea.

- Landa-bideen sarearen zuzkidura eta haren mantenua handitzea eta hobetzea.
- Bide-sarea eta haren orientazio-seinaleztapena egokitzea, lurralde osoari irisgarritasun egokia emanez eskualdeko zerbitzu eta hiriburuetara.

Mugikortasun-auziak eta -fluxuak konpontzea, lehentasuna emanez garraio publikoari eta motorizatu gabeko joan-etorriei

- Kaleen hierarkia eta haien eginkizunak modu garbian definitzea, mugikortasun jasangarriko eredu baten arabera.
- Kaleak urbanizatzea esleitutako eginkizunen arabera.
- Aparkatzeko arazoak mugikortasun jasangarriaren testuinguru globalean planteatzea, udalerrira osoan, eskaintza kudeatzeko politiken bitartez.
- Istripu-tasa murriztea, bai abiadura moteltzeko jardueren bitartez eta bai segurtasun-neurriak bidez azpiegiturretan ezartzearen bitartez.

Bide-hezkuntza eta mugikortasunaren ohitura jasangarriak bultzatzea

- Bizikletaren erabilera eta oinezko mugikortasuna sustatzeko kanpainak garatzea, eta oinezko eta txirrindulariekiko errespetua bultzatzea.
- Hiri-esparruaren erabilerrari buruzko informazio- eta prestakuntza-kanpainak garatzea.
- "Eskola-bideak" ezartzeko ekimenak bultzatzea.

Udal Mugikortasun Jasangarriko Planaren garapena bultzatzea

- Mugikortasunarekin lotutako parte-hartze eta hitzartze mekanismoak sortzea, eta baita koordinazio-mekanismoak ere, udal administrazioaren baitan.
- Mugikortasunarekin zerikusia duten alderdi guztiak modu koordinatuan planifikatzea, batez ere hirigintza-garapenarekin lotutakoak.

> GIZARTE-ONGIZATE ETA -INKLUSOA

- Ingurune osasungarria eta herritarren ohitura osasungarriak sustatzen dituzten ekintzak.

OINARRIZKO ADIERAZLEAK	ITURRIA
10_01 Airearen kalitateari buruzko indizea	UDALERRIAZ GAINDIKOA
03_15 Oinezkoen erabilerarako azalera	TOKIKOA
03_01 Bidegorri edo bizikleta-bideen sarea	TOKIKOA
10_15 Emakumeen bizi-itxaropena	UDALERRIAZ GAINDIKOA
10_16 Gizonen bizi-itxaropena	UDALERRIAZ GAINDIKOA
03_05 Automobil-parkea	UDALERRIAZ GAINDIKOA
03_25 Trafiko-istripuengatik gertatutako lesioek eragindako heriotzen tasa	TOKIKOA/UDALERRIAZ GAINDIKOA
ADIERAZLE OSAGARRIAK	ITURRIA
03_14 Eskola-bide seguruak dituzten eskolen kopurua	TOKIKOA
03_16 30eko eremuen azalera	TOKIKOA
03_12 Ibilgailu elektrikoen parkea	UDALERRIAZ GAINDIKOA
10_09 Ingurunekeo zarata orokorra	TOKIKOA
10_10 Gaueko ingurune-zarata	TOKIKOA
10_11 Garraio-azpiegiturek sortutako zarata (orokorra)	TOKIKOA
10_12 Garraio-azpiegiturek sortutako zarata (gauez)	TOKIKOA
10_13 Zaratagatik jarritako salaketak	TOKIKOA
10_14 Telefonía mugikorrerako antenak: espazio sentikorrekiko hurbiltasuna	TOKIKOA



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Doako, bidezko eta kalitatezko hezkuntza.
- Goi mailako hezkuntzara iristeko aukera-berdintasuna.
- Garapen jasangarrirako hezkuntza.
- Desgaitasunak dituzten pertsonentzat egokitutako hezkuntza-instalazioak.
- Ikaskuntza-ingurune seguruak, ez-biolentoak, inklusiboak eta eraginkorrak.

UDAL KUDEAKEAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> HEZKUNTZA

- Herritar guztiei bermatzea hezkuntza, kultura eta kirolaren alorreko ekipamendu eta zerbitzuen eskuragarritasuna eta irisgarritasuna.
- Teknologia berrietarako sarbidea erraztea eta orokortzea.
- Garapen jasangarrirako, bakerako eta kulturartekotasunerako hezkuntza bultzatzea.

OINARRIZKO ADIERAZLEAK	ITURRIA
11_10 0-2 urte arteko haur-hezkuntzako plaza kopurua	UDALERRIAZ GAINDIKOA
14_01 Udalerrian Eskolako 2030 Agenda programa duten ikastetxeetako ikasleak	TOKIKOA
14_02 Eskolako 2030 Agenda programaren ezarpena udalerrian	TOKIKOA
14_03 Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak gainditu dituzten pertsonak	UDALERRIAZ GAINDIKOA
14_04 Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak gainditu dituzten emakumeak	UDALERRIAZ GAINDIKOA
14_05 Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak gainditu dituzten gizonezkoak	UDALERRIAZ GAINDIKOA
14_06 Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten pertsonak	UDALERRIAZ GAINDIKOA
14_07 Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten emakumeak	UDALERRIAZ GAINDIKOA
14_08 Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten gizonezkoak	UDALERRIAZ GAINDIKOA
21_01 Tokiko 2030 Agenda eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa	TOKIKOA

5. GJH



GENERO BERDINTASUNA

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Emakume eta neska guztien aurkako diskriminazio eta indarkeria mota guztien amaiera.
- Zaintzaren eta ordaindu gabeko etxeko lanaren aitortza; erantzukizun konpartitua.
- Aukera-berdintasuna, emakumeen osoko parte-hartze erreala, eta lidergorako aukera-berdintasuna bizitza politiko, ekonomiko eta publikoaren erabakitze-maila guztietan.
- Ugalketa-eskubideak.
- Baliabide ekonomikoak, lurra, beste ondasun batzuk eta jabetza eskuratzeko eskubide-berdintasuna.
- Informazioaren eta komunikazioen teknologiaren erabilera hobetzea, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- Genero-berdintasuna eta ahalduntzea eta indartzea.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> BERDINTASUNA

Aukera-berdintasunerako politiken garapena bultzatzea

Emakume eta nesken ahalduntzea sostengatzea eta bultzatzea maila pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoan

- Emakumeen parte-hartze soziala arlo eta espazio guztietan sustatzea.
- Berdintasuna sustatzea gizarte-mugimenduetan eta herritarren mugimenduetan.
- Emakumeen presentzia erabakitze- eta zuzendaritza-eremuetan sustatzea.

Eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko, eskubideak bermatzeko eta gizarte-eredu jasangarriago eta bidezkoago bat lortzen laguntzeko

- Ordaindu gabeko zaintza-lanen gizarte-aitortzarekin kolaboratzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea aukera-berdintasuna sustatzeko beharraz.

Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta haren biktimei arreta integrala ematea

- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak egitea.
- Arreta integrala eskaintzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei.

> Erronka berriak

- Emakumeak ahalduntzeko teknologiaren erabilera hobetzea.

ONARRIZKO ADIERAZLEAK

ITURRIA

11_01 Pertsonen batez besteko errenta

UDALERRIAZ GAINDIKOA

11_02 Emakumeen batez besteko errenta pertsonala

UDALERRIAZ GAINDIKOA

11_03 Gizonen batez besteko errenta pertsonala

UDALERRIAZ GAINDIKOA

24_01 Udal korporazioan dauden emakumeen ehunekoa

TOKIKOA

24_02 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak

TOKIKOA



JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Ura lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa izatea, prezio egokian.
- Saneamendu- eta higiene-zerbitzuak eskuratu ahal izatea.
- Uraren kalitatea, kutsadura eta tratatu gabeko hondakin-uraren ehunekoa murriztuz.
- Baliabide hidrikoen erabilera efizientea, kudeaketa integratua.
- Ur-ekosistemen babesa, eta tokiko komunitateen parte-hartzea uraren kudeaketaren eta saneamenduaren hobekuntzan.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> URA

Baliabide hidrikoak modu egokian kontrolatzea eta kudeatzea

- Baliabide hidrikoen egoera eta bilakaeraren gaineko kontrola sistematizatzea.
- Uraren kudeaketa integratua sustatzea, haren gaineko ardura duten administrazioen arteko koordinazioaren bitartez.
- Uraren hornidura bermatzea, bai kantitate aldetik eta bai kalitate aldetik.

Ur-kontsumoa arrazionalizatea, sektorez sektore

- Hornidura-sarearen mantenu eta hobekuntza egokiak garatzea.
- Kontabilizatu gabeko uraren kantitatea kontrolatzea eta ahal den neurrian murriztea.
- Ur-kontsumoaren efizientzia aurrera egitea, sektorez sektore (etxebizitzaren sektorea, nekazaritza eta abeltzaintza, industria, administrazio publikoa, eta abar).
- Aurrera egitea araztutako uren eta euritako uren aprobetxamenduan.
- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, uraren kontsumo efizientea bultzatzeko.
- Uraren ziklo integralari buruzko informazioa ematea herritarrei, horri lotutako kostuak barne sartuta.
- Aurre egitea tasak ur-kontsumoari egokitzeko bidean.

Baliabide hidrikoen kutsadura arriskua murriztea

- Saneamendu-sarearen mantenu eta hobekuntza egokiak garatzea.
- Hondakin- eta hiri-uren saneamendua bermatzea.
- Kontrolatu gabeko isurketen egoera ezagutzea eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzea.
- Obren, hiri-garbiketen eta bestelako jardueren ondorioz sor daitezkeen isurketa puntual edo barreiatuak ezagutzea eta horien aurkako neurriak hartzea.
- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea.

Aisialdi, kirol eta jaietarako erabiltzen diren uren kalitatea bermatzea

- Ibai eta kostaldeko uraren kalitate-kontrolak egitea aisialdi edo kirol jarduerak nahiz jaialdiak egiten diren lekuetan eta herritarrak horretaz informatzea.
- Ingurune horietan egiten diren jarduerak kontrolatzea, kutsadura eragozteko.

> Erronka berriak

- Egokia denean, mugaz gaindiko lankidetzak kontsideratzea baliabide hidrikoen kudeaketa integratuan.

OINARRIZKO ADIERAZLEAK	ITURRIA
05_01 Etxeko ur kontsumoa, biztanle eta egun bakoitzeko	TOKIKOA
05_03 Udalerriko ur eskari osoa (bajako sareko ur hornidura)	UDALERRIAZ GAINDIKOA
05_08 Kontrolik gabeko ur kontsumoak (bajako sareko galerak eta fakturatu gabek ura)	TOKIKOA
05_09 Kontsumorako uraren osasun arloko kalifikazioa	UDALERRIAZ GAINDIKOA
05_10 Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. 1. Estazioa	UDALERRIAZ GAINDIKOA
05_11 Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. 2. Estazioa	UDALERRIAZ GAINDIKOA
05_12 Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. 3. Estazioa	UDALERRIAZ GAINDIKOA
05_17 Hondakin-urak tratatzeko sistema egokiak dituzten eta saneamendu-sarera lotuta dauden udalerriko etxebizitzak	TOKIKOA
05_18 Hondakin-urak tratatzeko sistema egokiak dituzten, baina saneamendu-sarera lotuta ez dauden udalerriko etxebizitzak	TOKIKOA

7. GJH



ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Pertsona guztiek energia-zerbitzu eskuragarri, fidagarri eta modernoak lortzeko bidea izatea.
- Energia berriztagarrien proportzioa handitzea, efizientzia energetikoa, ikerkuntza, eta energia-azpiegitura eta teknologia berrietara zuzendutako inbertsioaren sustapena.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> ENERGIA

Aurrera egitea tokiko energia-iturri garbi eta berriztagarrien erabileran

- Energia garbi eta berriztagarriak aprobeitzatzeko sistema jartzea udal instalazio eta ekipotan.
- Energia-iturri garbi eta berriztagarrien erabilera sustatzea udalerriko sektoreetan.

Energia kontsumoa arrazionalizatzea eta haren efizientzia handitzea udal administrazioan

- Tokiko administrazioaren kontsumoen informazio, kudeaketa eta kontrol sistemak hobetzea.
- Energia-kontsumo eta -efizientzia optimizatzea udal instalazio eta ekipamenduetan.
- Energia-kontsumoa argiteria publikoan optimizatzea.
- Energia-kontsumoa udal ibilgailuetan optimizatzea.

Energia-aurrezpen eta -efizientzia sustatzea udalerriko jarduera-sektoreetan

- Energia-kultura sustatzea herritarren artean eta udalerriko sektoreetan.
- Energia-efizientziako irizpideak eraikuntza eta instalazioetan aplikatzea.
- Energia-efizientzia udalerrian sustatzen duten arauzko mekanismoak eta pizgarri ekonomikoak garatzea.

Energia-pobrezia eta -kalteberatasunak herritarrengan duten eragina gutxitzea

- Energia-pobrezia eta -kalteberatasunaren eragin-maila aztertzea, eta baita arazo hori arintzeko dauden neurriak ere.
- Etxe (familia) kalteberen energia-efizientzia hobetzeko neurriak bultzatzea.
- Energia-pobreziako egoerak herritarren artean arintzeko xedez gizarte-zerbitzuetatik ematen diren laguntzen jarraipen eta kudeaketa aktiboa egitea.

OINARRIZKO ADIERAZLEAK

ITURRIA

06_01 Energia elektrikoaren etxek kontsumoa, biztanle eta urte bakoitzeko

UDALERRIAZ GAINDIKOA

06_03 Udalerriko energia-kontsumo osoa

UDALERRIAZ GAINDIKOA

06_08 Tokiko administrazioaren energia-kontsumo osoa

TOKIKOA/UDALERRIAZ GAINDIKOA

06_10 Energia-kontsumoa argiteria publikoan

TOKIKOA/UDALERRIAZ GAINDIKOA

06_12 Energia berriztagarrien ekoizpena

UDALERRIAZ GAINDIKOA

06_21 Eraginkortasun energetikoa etxebizitza eta eraikinetan

UDALERRIAZ GAINDIKOA

8. GJH



LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Hazkunde ekonomikoa.
- Dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza.
- Lan duina, enplegu betea eta produktiboa, ekintzailatza, mikroenpresen eta ETEen sustapena.
- Turismo jasangarriarekin eta tokiko ekoizpenarekin lotutako lana.
- Lan-eskubideak, lan-ingurune seguruak.
- Gazteen enplegua, aukera- eta ordainsari-berdintasuna.
- Finantza-instituzioak sendotzea, eta hazkunde ekonomikoa ingurunearen degradaziotik bereiztea.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> GARAPEN EKONOMIKOA

- Tokiko enpresa-ehuna sustatzea eta kultura ekintzaileari, berrikuntza teknologikoari eta ingurumen-kalitateari buruzko prestakuntza ematea.
- Tokiko enpresen garapena bultzatzea.
- Sektore industrialaren balioa nabarmentzea.
- Gizarte-ekonomia sustatzea.
- Natura- eta kultura-ondarean oinarritutako garapen turistiko jasangarria bultzatzea.
- Teknologia berrietan eta ezagutzan oinarritutako jarduera ekonomiko berrien garapena erraztea.
- Prestakuntza-zentroak, unibertsitatea eta ikerketa-zentroak enpresekin koordinatzearen alde egitea, prestakuntza-eskaintza lan-merkatuaren beharretara egokitzeko xedez.

> LAN-MERKATUA

- Lanari buruzko informazio eta prestakuntza ematea langabeen kolektiboari.
- Lan-prestakuntza sustatzea, laneratzea errazteko.
- Tokiko laneratze-mekanismoak eskaintzea, egoera ahulean dauden kolektiboari arreta berezia zuzenduz.
- Langileen prestakuntza etengabea hobetzea.

> Erronka berriak

- Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune seguru eta arriskurik gabea sustatzea.

GINARRIZKO ADIERAZLEAK

16_01 Langabezia-tasa

16_02 Emakumeen langabezia-tasa

16_03 Gizonezkoen langabezia-tasa

16_04 Jarduera-tasa

16_05 Emakumeen jarduera-tasa

16_06 Gizonezkoen jarduera-tasa

16_07 Gazteen langabezia

ITURRIA

UDALERRIAZ GAINDIKOA

UDALERRIAZ GAINDIKOA

UDALERRIAZ GAINDIKOA

UDALERRIAZ GAINDIKOA

UDALERRIAZ GAINDIKOA

UDALERRIAZ GAINDIKOA

UDALERRIAZ GAINDIKOA

16_10 Udalerriko establezimenduetan lan egiten duten pertsonak	UDALERRIAZ GAINDIKOA
17_01 Enpresen sorrera. Establezimenduen saldo garbia	UDALERRIAZ GAINDIKOA
17_02 Merkataritza-eskaintza. Txikizkako komertzioen azalera	UDALERRIAZ GAINDIKOA
17_03 Per capita BPG	UDALERRIAZ GAINDIKOA

ADIERAZLE OSAGARRIAK

ITURRIA

17_04 Industria-sektorearen balio erantsi gordina (BEGor)	UDALERRIAZ GAINDIKOA
17_05 Zerbitzu-sektorearen balio erantsi gordina (BEGor)	UDALERRIAZ GAINDIKOA

9. GJH



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Azpiegitura fidagarriak, jasagarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak.
- Industrializazio inklusibo eta jasagarria.
- Industria txikiek eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak eskuragarri izatea.
- Prozesu industrial garbiak eta ingurumen aldetik arrazionalak.
- Ikerketa zientifikoa eta ahalmen teknologikoaren hobekuntza; eta IKTetarako sarbide unibertsala.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> UDALARENK EZ DIREN ERAKUNDEEN INGURUMEN-KUDEAKETA

Udalerriko jardueretan eragina duen laneko arriskuen prebentziorako araudiaren betearazpena bermatzea

- Udalerrian arriskua sor dezaketen jarduerak identifikatzea eta haien lege-egokitasuna kontrolatzea, arriskuari dagokionez.

Jardueren ingurumen-jokabidearen hobekuntza sustatzea

- Jarduera-sektoreak Udaletik bultzatzen diren ingurumen-estrategietan inplikatzeko lortzea.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistemak eta Ekodiseinu Sistemak jarduera ekonomikoetan ezartzearen alde egitea.
- Jasangarritasun Txostenen argitalpena sustatzea, eta baita ingurumen-jokabide egokia eta/edo jasangarritasuna sustatzen duten/dituzten ekimenei atxikitzearen alde egitea.
- Ekonomia zirkularreko ekimenak sustatzea jardura ekonomikoetan.
- Kudeaketa hobetzeko ekimenak sustatzea industrialdeetan.

Jardueren lege-egokitasuna bermatzea

- Udalerriko jardueren zentsu eguneratu bat izatea, eta hor jasotzea lege-betekizunak betetzearen inguruan duten egoera.
- Jardueren kontrol egokia garatzeko udalaren zerbitzu teknikoek behar dituzten baliabideak eskura daudela bermatzea.

> Erronka berriak

- Azpiegitura fidagarriak, iraunkorrak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea, garapen ekonomikoa eta pertsonen ongizatea bultzatzeko.

01NARRIZKO ADIERAZLEAK

ITURRIA

09_01 Ingurumena kudeatzeko tresnen ezarpen maila (enpresa pribatueta, udalaz gaindiko harri administrazioetan eta udalaren ez diren beste erakundetan)	UDALERRIAZ GAINDIKOA
--	----------------------

10. GJH



DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

JORRATZEN DITUEN ALDERDIAK

- Pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa.
- Aukera-berdintasuna; berdintasunera zuzendutako zerga- eta soldata-politikak eta gizarte-babesaren alorrekoak.
- Garapenerako laguntza ofiziala; munduko instituzio eta merkatuak arautzea eta gainbegiratzea.

UDAL KUDEAKETAREN ARLO TEMATIKOEI LOTUTAKO EKINTZEN TIPOLOGIA

> GIZARTE-ONGIZATE ETA –INKLUSIOA

- Immigranteen osoko integrazioa erraztea.
- Immigranteek berdintasunezko tratua jasotzen dutela bermatzea.
- Egoera ahulean dauden sektoreen gizarte-sustapen eta –integrazioa erraztea.
- Aukera-berdintasuna sustatzea herritarren sektore guztietan.
- Belaunaldien arteko harremanak eta ezagutza-trukea bultzatzea.
- Haurren eskubideak bermatzea.

> ETXEBIZITZA

- Jabetza- eta alokairu-erregimenen konbinazio egokia bultzatzea, udalerriko beharrekin bat etorritz.
- Etxebizitza libreen eta babestuen arteko konbinazio egokia bultzatzea, udalerriko beharrekin bat etorritz.
- Etxebizitzaren eskaintza bultzatzea, familia forma berriei egokitutako tipologiekin (guraso bakarrekoak, eta abar).
- Etxebizitza eskuratzen laguntzea migratzaileei edo udalerritik pasatzen diren pertsonei.
